



Borroka arteen erakustaldiak, arrakasta

Jasotako dirua Pakistango kaltetuei bideratuko diete | 22

Saiolanek urrezko ezteiak ospatu zituen barikuan Garaian | 2



Eskolako jolaslekuko aterpea inauguratuta, Antzuolan | 11



Danbakako hirugarren kontzertuak emandakoa; kronika eta irudiak | 29



Irakaspen asko jasotzeaz gain, abestu eta dantza gogoz egin zuten ibarreko txikieneek; une batzuetan zoramena izan zen Intxaurtxuetan. | JOSETXO ARANTZABAL

Pirritx eta Porrotx: irakatsi, entretenitu eta txunditu

- Pupuri eta Loreri ongietorri bero-beroa egin zieten
- Ibarreko umeek, gozatzeaz gain, asko ikasi zuten

Pedro Migel Etxeniketik ireki du UNEDen ikasturtea

Juanjo Alvarez omendu zuten ekitaldian | 4

Bergarak irabazi du Arrasateko derbia

Etxekoak irabazten hasi, baina ezin izan zioten eutsi | 24

Ekitaldi hunkigarria Olabarriari eta Pildaini

35 urtez Antzuolako abesbatzan aritu izanagatik | 12



Olabarria eta Pildain, kontzertuaren ostean, oroigarria eskutan dutela. | J. ARANTZABAL



Ekitaldi berezia Saiolanen zilarrezko ezteiak ospatzeko

- Zentrotik igaro diren enpresak batu ziren ekitaldian
- "Eratze bidean" jarraitzen dutela esan zuten han
- Enpresa berriak sortzen laguntzen duen zentroa da

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Saiolanen ospakizunetan ibili dira egunotan. 25 urte ez dira egunero betetzen, eta, hori dela-eta, ekitaldia egin zuten egubakoitzean Garaia Berrikuntza Gunean. Lehenengo, enpresa garapenaz jarduteko mahaiaren bueltan batu ziren Elkargiko zuzendari nagusi Jesus Alberdi, Jaurilaritzako Industria eta Energia sailburuorde Xabier Garmendia, Innobasqueko Guillermo Ulazia, Mondragon taldeko Ezagutza, Promozio eta Berrikuntza presidenteorde Javier Sotil eta Saiolango kudeatzaile Armin Isasti.

Berbaldia amaitzean, Isastik hartu zuen hitza, urteurrenaren harira gertatutako memoria aurkezteko. Saiolanetik pasa diren enpresa guztiak gogorarazi zituen lehenengo; eta jarraian, 25 urtetik gora igaro eta gero "eratze bidean" jarraitzeak abantaila badaukala esan zuen: "Errebelazio ahalmen izugarria, egoera honetatik pentsatzeko eta jarduteko perspektiba mugagabeak direlako".

Isastiren esanetan: "Urte horietan guztietan Saiolanen ahaleginak egin ditugu proba eta errore espazioak sortzeko, dagokien

ESANAK

"Errebelazio ahalmen izugarria du Saiolanek"

ARMIN ISASTI | SAIOLANGO KUDEATZAILEA

DATUA

172

ENPRESA

1985. urtean jaio zenetik gaur arte 172 enpresa jarduera berri sortzen lagundu du Saiolanek.

erantzukizunak eskatuz". Isasti metafora batez baliatu zen Saiolanen orainaz jarduteko. "Musika zuria" jotzen jarrai dezatela eskatu zuen; hau da, "interpretatzeko zaila den eta apurka jo behar den musika".

Ekitaldia amaitu aurretik, uztaillean Saiolanek inauguratu zituen instalazio berriak bisitatu zituzten gonbidatuek.

Goi Eskola Politeknikotik

Arrasateko Enpresa eta Berrikuntzarako Zentroa da Saiolan. 1985. urtean sortu zen Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritza barruan, helburu bikoitzarekin: batetik, enpresa kudeaketari eta ingeniari gazteen sustapenaren gaineko prestakuntza osagarriari erantzutea; eta bestetik, unibertsitatearen artean zegoen %60ko langabeziari aurre egitea. Azkar eman zituen lehen fruituak gune berriak, sortu zen urte berean Saiolandik bi enpresa irten ziren-eta: Lantek eta Dorlet.

Esandako gunea aintzindaria izan da European, eta orain dela 25 urte jaio zenetik gaur arte 172 enpresa jarduera sortzen lagundu du. Horietatik, 138k jardunean dihardute egun, eta 2.300 langile inguru ari dira enpresa horietan lanean.

Hasierako helburu haietatik ez da askorik aldatu oraingoa: enpresa berriak sortzeko jarduera berriak sustatzen jarraitzea, egungo jardueren dibertsifikazioa eta produktu, zerbitzu edo prozesuen berrikuntza oinarri izanda beharrianak proaktiboki antzemanaz, eta ekintzaileak, bideragarritasun planak eta prototipoak uztartuz.

Armin Isastik nabarmendu du Saiolan "saiakuntzak" egin nahi dituzten pertsona guztientzako gunea dela, "askatasunez huts egiten uzten duen gunea".



Saiolaneko bultzatzaile Angel Mari Etxabe, Armin Isasti, Jose Ramon Gisasola eta Juan

Formazioa

Lana eta enpresak sortzeaz gain, Saiolanek beste hainbat mugarri garrantzitsu ditu; pertsonaren formazioa dago tartean. Eta horretarako, aktibitate berrien garapenerako, ekintzaile prozesua bost fasetan banatzen du Saiolanek: lehenengoan, motibazioa eta formazioa daude; bigarrenetan, negozio aukeren errekonozimendua; hirugarrenetan, enpresa proiektuen prototipoa lantzea; laugarrenetan, sorkuntza; eta azkenik, enpresaren garapena eta sendotzea. Saiolango monitore edo tutoreek hasierako faseak azken momentura arte eskaintzen diete laguntza eta babesa ekintzaileei.

Gaur egun, bereziki lau arlo orokorretan ari da lanean Saiolan: uraren arloan, *micromanufacturing* izenekoan, adimendun ontzien eremuan eta bizitza kalitatearen arloan. Aldi berean, azkenaldian zuzendarien formaziorako meto-

dologia propioa argitaratu du eta enpresa proiektu berriak sortu ditu: tartean, Eko3r, Soterna eta Ulma precinox daude.

Lehiakortasun guneak

Etorkizunari begira dituen proiektuen artean, Durangaldeko, Fagor taldearen eta Metaleko Lantegien Bizkaiko Federakuntzaren lehiakortasun estrategiak bultzatzeko egitasmoak nabarmendu dituzte Saiolanekoek.

Aldi berean, lehiakortasun guneak imitatu nahian, eskualde garapenerako erakundeekin ere bilerak egiten ari da, hala nola Tolosako Garatzen Eskualdeko Garapen Agentziarekin, Lea Artibai Eskualdeko Azaro Fundazioarekin eta Goierri Goieki Eskualdeko Garapen Agentziarekin. Horretaz aparte, Saiolandik jakinarazi digute lankidetzaren estrategiko hitzarmena sinatzekotan dabiltzala Orkestrarekin.

Moroak gara behelaino artean?

Joseba Sarrionandiaren liburu ezberdina. Bertan aurkituko dituzu pertsonaia historikoak eta gerla kolonialet buruzko gogoetak, aitormen pertsonalak eta iritzi politikoak, biografia bitxiak eta pasadizo sinesgaitzak, hizkuntzei buruzko ideiak...

Abenduan salgai



www.pamiela.com





Mari Ruiz de Ego, ekitaldian . | MIRIAN BITERI

ASIER GALDOS | OÑATIKO ALMIS ENPRESAKO ARDURADUNA

"Esperientzia, taldea eta jakintza azpimarratuko nituzke"

Orain dela 16 urte hasi ziren Almis finantza-softwarea garatzen Oñatin, eta puntako enprekin elkarlanean dihardute ordutik hona. Orain dela bi urte, sektore teknologikoan datorren paradigma aldaketa aurreikusita, software aske eta *cloud-computing* modeloan oinarrituta dagoen enpresa berria garatzen hasi ziren, gaur egun Almis Tecnologías de Gestión (ATG) moduan ezagutzen dena.



Asier Galdos. | ALMIS

Zelako lana egiten duzue han?

Enpresa-kudeaketa software askea garatzen dugu, web ingurunean, lizen-tziarik gabe eta estandar irekitan oinarritutako teknologiarekin. Fun-tzionalitate zabala, berritzailea eta ekonomikoa duen produktua, enpresan edo *Cloud*-ean ezar daitekeena. Enpre-saren filosofiaren harira, arkitektura eta diseinu onenak era banatu eta demokratikoan lan egiten duten tal-deetatik sortzen dira. Beraz, barne eta kanpoko berrikuntzarekin elkarlanean

aritzen gara. Bezeroen behar aldako- rrei ere erantzuten diegu, zerbitzu moldagarriak garatuta.

Ze izan da Saiolan Almisendako?

Oztopo eta aurreikusi gabeko arazoak sortzen dira, eta Saiolanen laguntza eta babesik gabe enpresa sortzea askoz zailagoa izango zen. *Business Plana* dokumentuaz gain, benetako plan estrategikoa egiterakoan ere Saiolanen esperientzia luzea ezinbestekoa izan da. Euren esperientzia, talde-lana eta jakintza nabarmenduko nituzke.

LIERNI LEKUONA | ARRASATEKO EKO3R ENPRESAKO ARDURADUNA

"Profesional egokiz hornituta dago Saiolan"

2009ko maiatzaren 18an sortu zen Eko3r, etxean erabilitako olioia birziklatzeko zerbitzu integrala eskaintzeko. Sistemaren giltzetako bat Eko3r ontzia da.

Nola izan zenuten Saiolanen berri?

Prozesua ulertzeko ezinbestekoa da bi fase bereiztea: lehenengoan, Arra-sateko Udalak eta Mondragon Uni-bertsitateak zazpi edukiontzi disei-natu zituzten. Sistemaren eraginga-



Lierni Lekuona. | EKO3R

rritasuna ikusita, Fagor Taldeak Saiolanen laguntzarekin merkatu iker-keta egin eta negozioaren fidagarritasuna neurtu zuen. Orain, bigarren fasean dago Eko3r, Fagorren eta Saiolanen laguntzaz, herritarrek olioia modurik eragingarrienean birziklatzeko siste-maren diseinuan. Azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa egin ondoren, erabil-tzaileen beharrak jakin eta herritarrek modu erraz eta praktikoa olioia birzi-klatzeko makina berdeak diseinatzin eta fabrikatzen ditugu.

Ze paper bete zuen Saiolanek?

Saiolanek merkatu ikerketa egiten lagundu zigun, bai eta makinaren disei-nuan Sormenekin elkarlanean. Ikerke-ta zentro garrantzitsua izateaz gain, profesional egokiz hornituta dago. Hainbat eta hainbat enpresari lagun-tzen die, gu horietako bat izan ginen. Talde-lana izan da proiektu honen gakoa, eta denon sormena eta lagun-tza ezinbestekoak. Oroitzapen onak eta gogorrak, biak uztartu dira bidea egiten joan garen heinean.

ASIER UGARTE | LEINTZ GATZAGAKO SORMENEN ARDURADUNA

"Saiolanen ez egonez gero, agian Sormen ez zen egongo"

Produktuen diseinua eta garapena egiten dute Sormen enpresan; hasierako kontzeptu estetiko eta funtzioaletik piezak bukatuta dauden arteko lana. Arlo askotan dabilta.

Noiztik lanean?

2001ean Saiolanen sartu nintzen. Urte hartan formazioa hartu eta bide-ragarritasun planak egin genituen; eta 2001ean esperientzia pilotua hasi nuen.



Asier Ugarte. | MIRIAN BITERI

Nola gogoratzen dituzu hasierako garai haiek?

Saiolanen egotea oso positiboa eta beharrezkoa izan da niretako. Bizitza honetan lor dezakezu zerbait, baina horrelako laguntasun barik askoz tra-ba gehiago daukazu eta bidea luzea-goia izan daiteke. Horren harira, bidea luzatzen den heinean, proiektua ber-tan behera uzteko aukera gehiago daude. Nire kasuan, formazioagatik edo esperientziagatik, diseinuz bane-kien. Baina enpresa bat zelan sortze-

ko, diseinuz aparte, bestelako gauza asko ere jakin behar dituzu. Hori da Saiolanek eskaini didana. Imajina dai-tekeen edozein negozio sortzeko gen-biltzanak batu ginen han.

Hain justu, enpresa berria aurrera ateratzen ikastea...

Hala da. Horretarako, tutoreen lagun-tzaz, merkatua aztertu, bezero posibleak topatu, bideragarritasun proiektuak egin, kontabilitateaz ikasi egiten duzu. Saiolanen ez egonez gero, gaur agian ez nintzateke hemen egongo.

GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN ETORKIZUNEN EREDU BERRIA



JOSÉ LUIS ELOSUA
Gipuzkoako Adineko Pertsonen
Kontseiluko lehendakariordea


"Gizarte Zerbitzuen gaineko lege berriaren bidez, adineko pertsonak bere ingurunean jarraitzea lortu nahi dugu, teknikoki posible den heinean, eta bere ingurutik atera beharrik ez izatea, horrek egoera animikoa eta sentimentala txartzea besterik ez baitakar".

"Etkez etxeko laguntza handitzea, etxebizitzak erabiltzaileen beharretara egokitzea, traba arkitektonikoak kentzea, belaunaldien artean elkartasuna izatea eta laguntza sozio-sanitarioa edukitzea izango dira, besteak beste, adineko pertsonen beren familietan jarrai dezaten lagunduko duten elementuak".

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Etxenikerekin hasi dute bidaia berria UNEDen, "etorkizunerako autobide" izateko asmotan

- ▶ Wolframioaren aurkikuntzatik abiatuta egin zuen zientzialari ezagunak ikasturte hasierako lezioa
- ▶ Ikasketak amaitu dituztenei diploma eta orain arteko zuzendari Juanjo Alvarez dominatu eman zieten

JULEN IRIONDO | BERGARA
Euskal zientzialari ezagunena izanda eta Bergarako Seminarioan egoitza duen unibertsitatearen ikasturte hasiera ekitaldiaren testuinguruan, ezin zitekeen bestela izan: Pedro Migel Etxeniketik 1783. urtean Elhuyar anaiek han bertan egindako wolframioaren aurkikuntzari erreferentzia eginenez hasi zuen 2010-11 ikasturtea irekitzeko lezioa. *Ezagutzarekiko pasioa. Unibertsitatea, etorkizunerako autobidea* izeneko hitzal-

dia egin zuen; ezagutzaren balioaz jardun zuen, zientziaz, baina baita euskarari eta Euskal Herriari buruz ere: "Gure herrigintzak etorkizunik izango badu, hezkuntzan, berrikuntzan, teknologian, zientzian eta euskararen oinarrituta izango da; euskarak eta Euskal Herriak gaur arte iraun badute, euskaldunok aldi eta egoera berrietara egokitzen jakin dugulako izan da", esan zuen *Donostia International Physics Center*-eko presidentek.

Etxenikerekin batera, Juanjo Alvarez izan zen ikasturte hasiera ekitaldiko beste protagonista nagusia. Ekitaldian izan ziren erakundeetako ordezkariak—Agur- ne Barruso alkatea, Markel Olano ahaldua, Iñaki Esparza UNED-Bergarako zuzendari berria eta Juan Antonio Gimeno UNEDeko errektorea—esker on hitzak izan zituzten hamalau urtez zentroko buru izan denarekiko; unibertsitatearen zilarrezko domina eman zioten Alvarez.

Berba batzuk ere egin zituen zuzendari ohiak: "Bizitzaz gozatu dut hamalau urteotan". Eskerrak eman zituen, baita ikasleei zuzenduta ere, "UNEDen izate arrazoia".
Hain justu, 2008-09 ikasturtean ikasketak amaitu zituzten ikasleei diplomak eman zizkieten ekitaldiaren amaiera aldera. Urtetik urtera ikasle gehiago izaten ditu Bergarako UNEDek: iaz, adibidez, 3.000 izan ziren, aurreko ikasturtean baino %20 gehiago.

Permutarena, denek gogoan

Seminarioaren permutari ez zioten erreferentzia zuzenik egin ekitaldian hitza hartu zutenek, baina zeharka denek izan zuten gogoan. Alkateak esan zuen berezia dela ikasturte berria, "eraikinaren gaia konpondu gabe dagoela eraikina konpontzen hasi direlako"; Gimeno, berriz, egoitzaren gaia ikasturte honetan konponduko dela espero duela. Olanok, azkenik, garai ekonomiko zaila aipatu zuen, eta erakundearen arteko elkarlana aldarrikatu.



Pedro Migel Etxenikeren hitzaldia adi jarraitu zuten osoko bilkuren aretoan batu zirenek. | JULEN IRIONDO



Ikasketak amaitutakoek diplomak jaso zituzten bukaeran. | J.I.

ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA


Arizmendi Koop.E-ko Estatutu Sozialetako 30.artikuluak dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak, 2010eko azaroaren 9an egoitza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E-ko bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

DEIALDIA

Eguna: 2010eko abenduaren 15a.
Lekua: Arimazubi guneko aretoa.
Ordua: Lehen deialdia: 18:00.
Bigarren deialdia: 18:30.

GAI-ZERRENDA

LEHENA. - Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onspen-txostenaren irakurtzea. Aktaren onspenerako bi bazkideren izendapena.
BIGARRENA. - 2009-2010 ekitaldiko sozietate-kudeaketa aztertzea eta, hala balegokio, Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua eta Txostena), baita kudeaketa-txostena ere, onartzea.
HIRUGARRENA. - 2009-10 ekitaldiko emaitzen banaketa.
LAUGARRENA. - 2010-2011 ekitaldirako aurrekontuaren aurkezpena.
BOSGARRENA. - Kontu ikuskarien izendapena.
SEIGARRENA. - Kontseilu Errektorearen eta Kontseilu Sozialaren berriatzea.
ZAZPIGARRENA. - Kontseilu Errektorearen ahalduztzea.
ZORTZIGARRENA. - Galde-erantzunak.


Juan Luis Arexolaleiba Biteri
Lehendakaria


Arizmendi
ikastola
Arrasate, 2010/11/09

Egibarrek dio Batu Gaitezen ekimenenean daudela etorkizuneko gidari izateko gakoak

Printzipiook ondoen interpretatzen dituen izango ei da geroko liderra

JULEN IRIONDO | BERGARA
Giza eskubideen defentsa eta erabakitzeko eskubidearena; bi printzipio horietan laburbiltzen dira, Joseba Egibarren esanetan, Batu Gaitezen ekimenaren zortzi puntuak. Eta printzipio horiek ondoen interpretatzen dituen izango da, Egibarren arabera, etorkizunerako proiektuak gidatuko dituen. EAJk 70eko hamarkadan—Txibertako garaian—ere printzipio horien aldeko apustua egin zuela eta EAJren eta ezker abertzalearen arteko "lehenengo etena" orduan gertatu zela adierazi zuen buruzagi jeltzaleak domeka eguerdian, Bergaran egindako ekitaldi politikoan.

Denborak arrazoia eman diela eta orain ezker abertzalea poliki poliki eurek beti defendatu izan dituzten posizionamenduetarantz doala nabarmendu zuen. Aipatutako printzipioen defentsa, dena

den, tinkoa izan behar dela ohar-tarazi zuen, eta ez unean uneko beharren arabera. Ezker abertzaleak zapatuan iragarritakoen inguruan, esan zuen argiago ezin dela hitz egin: "Legearen ikuspegitik ez dago inongo arazorik"; orain, zenbakiak ateratzen bazaiz-

kie eta legez-kanporatzeen beharra-eta badute, PSE-EEK eta PPK berriz egingo dutela ohartarazi zuen. Rubalcabak ere badakiela ezker abertzalea benetan ari dela, baina ez duela gustuko, euskal politika kontrolatzen jarraitu nahi dutelako.



Joseba Egibar Bergaran, Batu Gaitezen ekimenaren barruan. | J.I.

EAJk irabaziko lituzke Gipuzkoako foru hauteskundeak inkesta baten arabera

- ▶ 14 batzarkide lortuko lituzke, eta PSE-EE bigarren indarra 13rekin
- ▶ Aztiker eta Logikaline enpresek egin dute inkesta, Aldundiak eskatuta

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA
Aurreko foru hauteskundeetan ez bezala, datorren udaberrian egingo diren bozketak EAJk irabaziko lituzke 14 batzarkiderekin (botuen %24,28). Bigarren indarra PSE-EE izango zen 13 eserleku-rekin (%21,29). Aldundiak hala

eskatuta, urria eta azaro artean Aztiker eta Logikaline enpresek egindako inkesta baten emaitzak dira hauek.
Deba-Urola barrutiko botu estimazioan ere, EAJ gailenduko zen 4 batzarkiderekin (%26,29). Bigarren indarra izango litzate-

ke Ezker Abertzalea 3 jesarleku-rekin (%18,68).
Inkesta honetako datuak Ezker Abertzalearen balizko parte-hartzea kontuan hartuta egin dute. Hori dela-eta, alderdi nagusienek (EAJ eta PSE-EEk) eserlekuak galdu dituzte.

Politikan, interes gutxi
Inkesta honek plazaratutako bes-telako datuen arabera, gipuzkoa-rrek interes gutxi dute politikan. Gizartearen %70ak politika ustel-keriarekin lotzen du. Olano bes-tetik, politikari "gertuko" eta "jator" bezala hartzen dute.



Juan Carlos Garitano. | J.A.

Garitanok saria konposta egiteagatik

L.M. | ARRASATE
Arrasateko Juan Carlos Garitano hirugarren sailkatu da Gipuzkoako II. Etxeko Konpostaje lehiaketan. Orotara, 39 herritako 86 familia aurkeztu ziren lehiaketara, eta horietatik 12 Debagoienakoak izan ziren, 7 Oñatikoak, eta gainerako 5ak Arrasatekoak.

Aldundiko ingurumen teknikariak etxez etxe aritu dira konpost ezberdinen laginak biltzen. "Nire konposta neurtzera etorri zirenean, parametroen barruan nahiko juxtu sartzen nintzen, eta horregatik harriduraz eta sorpresaz jaso dut hirugarren sari hau" dio Garitanok. Lehen aldia da lehiaketan parte hartzen duela, baina dagoeneko bost urtez ari da etxeko gai organikoak konposta egiteko erabiltzen.

Zabor gutxiago
Diputaziotik adierazi zutenaren arabera, 350 kilo gutxiago sortzen dute bataz beste konposta egiten duen familia bakoitzak. "Guk hori nabaritzen dugu, lehen egunero ateratzen genuen zaborra, eta orain astean edo bitan" dio arrasatearrak.

Juan Carlos Garitanok, ordea, beste bi familia gehiagoren konposta ere egiten du: "Denak familiakoak gara, eta nik hartzen dut konposta egiteko ardura". Askok, eta ona gainera.

DEBA UROLA BARRUTIA		
ALDERDIAK	BATZARKIDEAK	%
EAJ-PNV	4	26,29
Ezker Abertzalea	3	18,68
PSE-EE	3	14,92
Aralar	2	10,71
EA	1	10,07
PP	1	9,59
EB	0	3,33
H1!	0	1,79
Alternatiba	0	1,00
UPyD	0	0,26
Beste batzuk	0	3,36
ABSTENTZIOA		34,81

AZTIKER ETA LOGIKALINE

GIPUZKOA		
ALDERDIAK	BATZARKIDEAK	%
EAJ-PNV	14	24,28
PSE-EE	13	21,29
Ezker Abertzalea	9	16,11
PP	6	12,18
Aralar	5	9,45
EA	3	6,99
EB	1	4,59
H1!	0	1,48
Alternatiba	0	1,34
UPyD	0	0,60
Beste batzuk	0	1,68
ABSTENTZIOA		38,59

AZTIKER ETA LOGIKALINE

Inkestak utzitako zertzelada batzuk

- ▶ H1!-ek ez du ordezkariarik lortuko. EAJ 7 batzarkide ditu egun, eta horiek guztiak H1!-era pasa ziren banaketaren ostean. EAJ 3 batzarkide lortuko ditu.
- ▶ Politika orokorrarekiko interes gutxi erakutsi dute herritarrek, baina udal politikarekiko atxikimendu handiagoa.
- ▶ Markel Olano ahaldu Nagusiak 5,03 nota jaso du herritarren aldetik. Patxi Lopez lehendakariak, ordea, 4,35. Lopez gipuzkoarren %90ak ezagutzen du, eta Olano erdiak.

'Gainerakoen minaren aurkako pilulak' kanpaina iritsi da gurera ere

L.M. | BERGARA
Gainerakoen minaren aurkako pilulak kanpaina abiarazi du Médicos sin Fronteras Gobernu Kanpoko Erakundeak. Gipuzkoako Sendagileen Elkartek ere eurekin bat egin, eta Debagoienako farmazietara ere iritsi da kanpaina.
Euro baten truke, mentazko 6 karamelu erosi ahal izango dira, ahaztutako gaixotasun bakoitzeko pilula bat. Era honetan, gizartea kontzientziatu gura dute Médicos sin Fronteras-ekoek, eta irabazten duten diru kopurua

zuzenean ahaztutako gaixotasun hauen ikerketak bultzatzeko bideratuko da. Kanpainaren ardatz, ahaztutako gaixotasun hauek hartu dituzte: kala azar, Chagas, logalearen gaixotasuna, tuberkulosia, malaria edo haurren IHESa.
Gipuzkoako 271 farmazietan jarri dira karamelu hauek, eta oraindik farmazia gehiago batzea espero dute Gipuzkoako Sendagileen Elkartetik. Kanpaina hau hasi besterik ez baita egin, eta urtebete luzatuko dela jakinarazi dute.



Pertsona bat pilulak hartzen, Bergarako farmazia batean. | LANDER MUÑAGORRI



OGIZUN

koop. elk.

okindegia



Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Sektorearen gehiengoa ordezkatu duen lan hitzarmena aldarrikatu dute

Greba eta mobilizazioak egin dituzte asteon zaharren egoitzetan



Debagoieneko egoitzetako langileetako batzuk eguaztenean San Martin plazan egindako agerraldian. | MIREIA BIKUÑA

T.MADINA/M.BIKUÑA | BERGARA

Greba eta mobilizazio astea egin dute Gipuzkoako hirugarren adinekoendako egoitzetako langileek, ELA eta LAB sindikatuak deituta. Baina, lanuzteez gain, elka-

rretaratzeak ere egin dituzte. Hori horrela, astelehenean eta eguaztenean ibarreko egoitzetako langileetako batzuk bildu ziren Bergarako plazan *Hitzarmena guztiontzat, inposaketarik ez* lelo-

pean. Kantu eta oihu artean euren aldarrikapenak egin zituzten herritarren aurrean.

LAB sindikatuko arlo sozio-komunitarioko ibarreko ardura-dun Leire Ormazabalek esan zuen

bizi duten egoera Aldundiaren errua dela: "Diputazioak gura izan du kosta ahala kosta sektoreko lan hitzarmena sinatzea eta agindu hori eman zien bere garaian Adegia eta Lares patro-

nalei. Haiek, era berean, sektorearen %20ko ordezkaritza duten CCOO eta UGT sindikatuekin sinatu zuten hitzarmena, gu kanpoan utzita. Gutxiengoarekin sinatu dute hitzarmena".

ELAk eta LABek %80

Ormazabalek azpimarratu zuen ELAk eta LABek %80ko ordezkaritza dutela, baina ez dietela euren aldarrikapenei kasurik egin: "Akordiora heltzekotan geundela, joko zikina erabiliz, kanpoan utzi gaituzte. Guk 12 puntuko proposamena egin genuen, eta bat bera ere ez dute sartu hitzarmen berrian. Hori horrela, oso haserre gaude".

Era berean salatu zuten greba astean ezarritako zerbitzu minimoak gehiegizkoak izan direla: "Egunean %75 eta gauetan 100% izan da". Dena den, oso positiboki baloratu dute lanuzteak izan duen jarraipena.

Mondragon Taldeko ordezkariak Zapaterorekin batzartu dira Madrilen

Jose Mari Aldekoa Estatuko 30 enpresa nagusien ordezkarien artean dago

M.B. | ARRASATE

Mondragon Taldeko presidente Jose Mari Aldekoa Jose Luis Rodriguez Zapaterorekin batzartu zen zapatuan Madrilen. Harekin batera egon ziren Estatu mailako 30 enpresa nagusietako ordezkariak. Mondragon Taldearekin batera, BBVA, Gamesa eta Iberdrola izan ziren bileran parte hartu zuten eskualdeko ordezkariak. Lehen aldiz gonbidatu du Espainiako Gober-

nuak Mondragon Taldea halako bileretara.

Bileraren helburua enplegua sortzeko eta arrakasta handirik izan ez duen *España* marka berpizteko aukerak aztertzea zen. Bileran egon ziren ekonomia arloko sektore askotariko ordezkariak: energia, eraikuntza, turismo eta telekomunikazio arloetakoak, besteak beste. Izenei dagokienez, Zapaterorekin egon ziren Florentino Perez, Amancio Ortega, Emilio Botin, Cesar Alierta eta Isidoro Alvarez.

Nazioartera zabaltzeko

Enpresaburuek euren iritzia emateko aukera izan zuten, eta Zapaterok enplegua sortzeko dituen asmoen gainekoak azaldu zizkien. Espainiako presidentek lana sortzeko ahalegin berezia eskatu zien ordezkari guztiei. Enpresek euren produktuak nazioartera zabaltzeko prozesuan gobernuaren laguntza agindu zien presidenteari.



Jose Mari Aldekoa. | GOIENA



Muko eta Basque Culinary Centerko ordezkariak eta sukaldariak, aurkezpenaren ondoren. | MONDRAGON UNIBERTSITATEA

MUren Gastronomia eta Sukaldeko Zientzien gradua aurkeztu dute Donostian

Lau urteko titulazio ofiziala emango dute datorren ikasturtetik aurrera Basque Culinary Centerren

M.B. | BERGARA

Eguaztenean aurkeztu zuen Basque Culinary Centerrek Gastronomia eta Sukaldeko Zientzien gradua. Aurkezpenean egon ziren MUko errektore Josu Zabala, Basque Culinary Centerko zuzendari Jose Mari Aizega eta patro-

natuko hainbat sukaldari ezagun; besteak beste, Pedro Subijana, Juan Mari Artzak, Andoni Luis Aduriz eta Martin Berasategi. Eurek eman zituzten gradu berriaren ezaugarri nagusiak: ikasturte berrian hasiko dira eskolak ematen, 50 gazterendako lekua

egongo da, lau urteko titulazio ofiziala izango da, Goi Hezkuntzako Europako Espaziora egokituta egongo da eta finantzatzeko aukera eta beka-sistema propioa izango ditu.

1.200 metro koadro

Lau alor nagusi izango ditu gradu berriak: sukalde-areto-sommelier teknikak; negozioazioaren kudeaketa; zientzia eta teknologia; eta kultura eta artea.

Basque Culinary Center Donostiako Parke Teknolgikoan dago. 1.200 metro koadro ditu eta Zientzia Gastronomikoen ikerketa eta berrikuntza zentroa duen munduko fakultate bakarra izango da.

Javier Perez | Abokatua

"Testamentua egiteagatik ez dira arazo guztiak konpontzen, baina mugak zehazten dira"

- Testamentua egitean, norbanakoa zuhurra izatea eta prebentzioz jokatzeari aholkatzen du
- Ondasunen banaketa batzaz beste 55-60 urte dauzkagunean hasten gara egiten

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Iragan den egubakoitzean Javier Perez abokatuak hitzaldia eskaini zuen Bergarako Angiozar auzoan. Bertan testamentuari buruz mintzatu zen; egiteak duen garrantziaz, eta ez egiteak ekar ditzakeen ondorioez. Testamentua ongi egitea ere garrantzitsua da, eta ondasunak banatzeko hainbat xehetasun ere eskaini zituen.

Nola egin behar da testamentua?

Jende asko zuzenean notarioarengana joaten da, bera izaten baita azken finean testamentua egiten dizuna. Hala ere, inoiz ez dago soberan notariara joan aurretik aholkua eskatzea. Egokiena zer litzatekeen? Zuhurra izatea eta prebentzioz jokatzeari.

Noiz egin beharko litzateke?

Testamentua hil ondorengo gauza bat izango balitz bezala ulertzen dugu, eta hori dela-eta bizitzaren azken uneetan egiteko gauza dela iruditzen zaigu. Hala ere, 14 urte betetzen ditugunetik, edozein unetan egin dezakegu herentzia, baina normalean adin horrekin ez da testamenturik egiten.

Orokorrean zein adinekin hasten da orduan testamentua egiten?

Orokorrean, 35-40 urtetatik aurrera testamentua egiten pentsatzen hasten da jendea. Hala eta guztiz ere, batzaz beste 55-60 urte inguruko jendea inguratzen da notaria eta abokatuengana herentzia zehazteko; izan ere, garai horretan hasten da pertsona heriotzarekin kezkatzen. Une horretan hasten dira hortaz euren ondasunak heriotzaren ondorenerako ordenatzen.

Eta testamentua ez egitea zer da hortaz, axolagabekeria?

Ez, ez dauka zertan. Garbi eduki behar da, testamentua egin behar bada, ondasunak zeini utzi ongi jakitea komeni dela. Nahitaezko oinordekoa ez den norbaiti testamentuan lekua egin nahi baldin bazaio, orduan nahitaezkoa da testamentua egitea. Oinordeko guztiei ondasunak zati berdinetan uztea baldin bada gure nahia, orduan ez da beharrezkoa testamenturik egitea, legeak gure gurari hori ordezkatzeko baitzukeen.

Zergatik?

Legeak baitio, zendu den pertsonaren ondasun guztiak nahitaezko oinordekoen artean banatu behar direla, zati berberetan. Hala egiterik nahi ez badugu, eta senideen artean baten bati ondasun gehiago utzi nahi badiogu, edo baten bat desheredatu gura izanez gero, orduan nahitaezkoa da testamentua egitea.



Javier Perez abokatua Oñatin duen bulegoan. | LANDER MUÑAGORRI

Zeintzuk dira nahitaezko oinordekoak, legez herentzia jaso behar duten horiek?

Seme edo bilobaren bat dagoenean, oinordekoak beti ondorengo hauek izango dira. Hauen gabezia, guraso, aiton-amonak edo goranzko senideak izango dira. Bi kasu hauetakoren bat betetzen ez denean, ezkontideak, anaiak, eta hortik zeharkako senitartekoak; lehengusuak, eta hortik beherakoak. Legeak dio testamenturik ez dagoenean hauen artean banatu beharko dela ondasun osoa. Bestetik, testamentua egiten denean ere, zati minimo bat utzi behar zaie nahitaezko oinordekoiei, zein graduakoa den kontuan hartuta. Esaterako, nahitaezkoak semeak baldin badira, legeak ondasunen bi herena gordetzen die; gurasoak badira bestalde, alargunak ez badago, ondasunen erdia jasoko dute hauek. Alargunak dauden unean, gurasoek herena jasoko dute.

Eta alargunak bere herentziaren zatia saldu dezake bere semeen baimenik gabe?

Alargunak ondasuna norekin elkarbanatzen duenaren arabera. Legeak alargunari usufuktua gordetzen dio, hau da ondasun horretaz gozatzeko eskubidea. Baina usufuktua alargunak baldin badauka ere, jabetza semeena edo nahitaezko oinordekoena izango zen. Horregatik, ondasun hori saltzeko garaian, denenean artean erabaki batera iritsi beharko zuten, edo bestela bakoitzak bere zatia saldu. Usufuktua

"Testamentua bertan behera geratzen da egilea mehatxatu badute"

"Oinordekoei ondasunak berdin banatu nahi bada, ez da egin beharrik"

esaterako, balio handiagoa dauka alarguna gazteagoa den heinean.

Herentzia familiarteko gatazka ugariren sorburua izaten da maiz...

Testamentua egiteko garaian, norberak enbidoa botatzen du ondasunak banatzeko unean. Arazoak maiz hasten dira, norbaitek kotxe hau edo etxebizitza hau nahi duenean eta tokatu ez zaionean. Herentzia egiterakoan, horrek ez du esan nahi arazo guztiak amaitzen direnik, baina muga zehatz batzuk finkatzen dira bederen. Kasurik tipikoena, senitarteko bat besteak baino hobe geratzen direnean ematen dira, askotan epaitegietara ere jotzen dute.

Baina beti hildakoaren nahia bete beharko da...

Hala da. Baina testamentua egiten duena uneren batean mehatxatuta edo derrigortuta egon zela frogatzen baldin bada, testamentua bertan behera geratzen da. Testamentua bertan behera uzteko beste kasu bat izan dai-

teke testamentu-egilea egoera mental ezegonkorrean zegoela frogatzen baldin bada. Gizartea zahartzen ari da zahartzarora gero eta egoera mental okerragoetan iristen gara, eta testamentua bizitzako azken unean egiten dela kontuan hartuta... Horregatik, notarioak hainbat galdera egiten dizkio testamentu-egileari. "Zenbat urte dituzu? Zein egun da gaur? Zer moduz?" eta tanke-rakoak.

Eta testamentu-egilea mehatxatua izan dela nola frogatzen da?

Horixe da abokatuok daukagun arazoa, frogak lortzea. Gutunak testamentu-egilea mehatxatuz, tratu txarrak ikusi izan dituzten testiguak edo tankerako frogak izaten dira askotan, baina diodan bezala zaila da. Testamentuak halere hamaika egin daitezke, eta kontuan hartuko dena azkena izango da. Horregatik behin mehatxupean testamentua egin ostean, beste bat egin daiteke, baina hori ere zaila da mehatxutzaileak testamentu-egilea kontrolatu ohi duelako.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Angel Iturbe | EAJko alkatea Oñatin (1991-2003)

- Reyes Korkostegirekin 1967an eta 1968an zinegotzi izan zen Angel Iturbe
- 1991n alkate izendatu zuten; hiru agintalditan jarraian izan zen Oñatiko alkatea
- Oñatiko Ur Jauziak erosi zituzten urteak gogorrak izan zirela gogoratzen du

"Nik beti esaten nuen zinegotziak kondenatuta geundela herriko gaietan adostasunera iristera"

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Eli Galdosi hartu zion lekukoa Angel Iturbek 1991n. Aurrez sei urtez izan zen zinegotzi: bi urte Korkostegirekin eta beste lau Galdosekin. 12 urtez Oñatiko alkate lanak egin ondoren, 2003an utzi zuen politika Iturbek. Urte haietako errebasoa egin dugu harekin.

1989an, egungo Oñatiko Ur Jauziak erosi zenituzten. Nola gogoratzen duzu garai hura?

Argi neukan zertan sartzen ginen, bai obligazioei zegokienez eta baita ondorengo etekinei zegokienez ere. Orduan, bageneukan esperantza nonbaitetik dirulaguntzaren bat jasoko genuela. Gaur, harrotasunez esan dezaket inork zentimorik eman barik geu bakarrik gauza izan ginela hori guztia subentzionatu eta aurrera ateratzeko. Hori bai, gaizki pasatuta eta zorpetze handiarekin. Ziurrenez, Europa mailako zorpetze handiena izango genuen, ia %40. Ondorioz, ez hilero baina bai hilabete askotan diru barik egoten ginen. Hortaz, Diputazioak dirua aurrerratu behar izaten zigun, baina dirulaguntzarik ez ziguten inoiz eman.

Laguntasuna, baina, izan zenuten EEERen aldetik (EVE).

Bai, handia: teknikoak, aholkularitza... Inbertsio guztia izan zen 1.275 milioi; guk ipini genituen 850 milioi kreditu bidez eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) 425 milioi. Gero, diru irabaziak ematen hasi zenean, EEERI akzioak banatzen genizkion.

Akzioen %90era iritsi ginenean geratu egin ginen. Zergatik egin genuen planto? Guk uste genuen ona izan zitekeela horrelako baz-



Angel Iturbe, oraingo astean Oñatiko plazan. | A.E.

kide bat izatea, edozein hondamendi gertatuta ere...

Kritika asko jaso zenituzten?

Kritikak jaso genituen ez guk hori erosi izanagatik; izan ere,

jendea ados zegoen. Kritikak jaso genituen herrian beharrezkoak ziren beste hainbat gauza ezin izaten genituelako egin dirurik ez zegoelako.

90eko hamarkadan, krisi garaian, sortu zenuten Oñatiko Etxegintza.

Krisi garaiak gogorrak izaten dira eta Udalarendako ardura

"Oñatiko Ur Jauziak erosi genituenean zorpetze maila handia izan genuen"

"90eko hamarkadako krisian sortu genuen Oñatiko Etxegintza"



1999an anaitze monumentua inauguratu zuten eguna. | GOIENA

handikoak, herritarrak gertuen duen erakundea delako Udala. 1993. urtean izan genuen krisi bat, ez gaurkoa bezalakoa. Orduan, horri aurre egiteko, Udalak sortu zuen Oñatiko Etxegintza; %51 Udalarena zen eta beste %49 Oñatiko hiru eraikuntza enpresak zuten. Orduan, adibidez, egin genituen Bidebarrieta auzoko etxeak. Aprobetxatu genuen etxebizitza sozialak egin eta lokalak egiteko.

Zure garaian hainbat anaitze egin zenituzten. Ze helbururekin?

Anaitze mota ezberdinak egiten ziren: batzuk European harremak izateko egiten ziren; gure kasuan, Chateaubernardekin egin genuen.

Saharako Gleibat El Fula herriarekin, adibidez, laguntza anaitzea izan zen; Mexikoko Zacatecas eta Guadalajara herriak Cristobal de Oñatek sortu zituen; eta, Argentinako Jose C. Paz Jose Bidente Altubek sortutako herria da. Hori ere anaitze historikoak izan ziren.

Bizi izan zenituen une gogorrak?

Ez, une gogorrak ez. Gure artean talde bezala ondo eramaten ginen, bagenekien bakoitzak zela pentsatzen zuen, eta politikan bakoitzak bere iritzia zuen; baina, herriko gaietan, nik esaten nuen kondenatuta geundela adostasunera iristera. Zinegotzi baten lana da herriarendako lan egitea.

Gogoan dut %97ko adostasuna izan genuela osoko bilkuretan. Ohitura geneukan bakoitzak bere arrazoiak aurkeztu eta gauza garrantzitsuetan adostasunera iritsi arte eztabaidatzea. Mozio politikoetan ez zen horrelakorik gertatzen, hor bakoitzak bere iritzia zuen.

MIKELEN HERIOTZA

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA | FILMA ETA TERTULIA SAIOA

EGUAZTENA, ABENDUAK 1, 20:45: TERTULIA | 21:45: FILMA | TXOMIN MADINAK AURKEZTUTA



Saia zaitez sasoiari
egoten ez ezik,
zeure bizi-mailari
eusten ere: merezi du.



Kutxa Aurreikuspen Planak.
Etorkizun segurua **kutxaren**
kaudimenarekin.

Kutxa 2016 eta 2018 Aurreikuspen Plan berriek **jarritako kapitalaren %100 eta errentagarritasun handia** bermatzen dute.

Sar zaitez kutxa.net-en eta kalkulatu zenbatekoa izango den zure pentsioa erretiroa hartutakoan. Gero, zuk erabaki aldatu nahi duzun edo ez.

Kutxaren Aurreikuspen Planak Kutxa Bi BGAEra atxikita daude.



ZABALIK

JUAN MARTIN ELEXPURU
'http://goiena.net/iritzia/'



Degurixa

Izenburua irakurtzerakuan batek baino gehixagok pentsauko zeban: zer esan nahi ete jok berba horrek? Mendialde bat dala argittu ezker, zenbaittek pentsauko leuke Himalaia aldeko zortzi milako ezezagunen bat ete dan. Interesgarrixa izango litzake Debagoienian inkestatxo bat egitia jakiteko zenbat jentek ezagutzen daben Degurixa, han egon dalako edo gutxienez entzutia badaukalako. Hurrengo GOIENAn, biharbada.

Aste honetan Pako Iriondo mendizale eta federaziño-buru mitikoarekin berba egittia tokau jaku, eta esaten zoskun berandako mendirik polittena Aizkorri-Urbixa-Degurixa... inguru hori dala Debagoienian. Zoragarrixa! Eta Euskal Herrixan, harrikada baten barruan, hainbat mendialde ditugula zein baino zein ederraguak, munduko paraje onenen inbidia-barekuak.

Hala eta be, kexu zan geure mendixak ezagutu barik Alpeetara edo Himalaiara joaten dalako zenbait mendizale, zortzimi-lakuak "egin" nahi dittuelako, etxe ondoko milakuetara igo barik. Eta hau ez da mendi kontuetan bakarrik pasatzen. Euskaraz karre-rak egindako gazte musikazale asko ezagutzen dogu Joseba Tapia zein dan ez dakixena, eta Xabier Lete edo Erramun Martikorena be hortxe-hortxe, baina auskalo zein talde australiar etortzen bada BECera, hilabete aurretik sarrerria erosiko dabena.

Eta zer esan oporrekin? Urrin joan bihar da nahi eta nahi ez. Oin ixa edozein doia Yemenera, Vietnamera, Balira edo Thailandiara, lehen Urbixara edo Lekeitiora moduan. Baina Elizondo, Bakio, Añana edo Ernioren arrastorik be ez. Eta Zuberoa? Kontinente honetakua ete da? Globalizaziñuan kontuak izango die seguruen.

Kanpolarrosak esan izan jakue etxian kakatsuak eta kanpuan zoragarriak direnei. Baina esango neuke bigarren esanahi bat be hartu dabela aspaldi hontan berbiak. Edo berba leunegixa da norberarena ezagutu nahi ez eta beti urrineko intxaurren bila dabilenandako?

USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | 'tmadina@goiena.com'

Ametsak hobeak direnean...

Benedikto XVI.a eta ezagutu berri dituen kondoiaren onurak; Esperanza Aguirrek katalanez egindako hitzaldia; Espainiako ligan, Barçaren eta Real Madri-len arteko denboraldiko lehen "mendeko" partidua; kolera Haitin eragiten ari den sarraskia; EBk (Europa Buchananek) Irlandarako prestatu duen erreskate plana...

Albiste horiek ditut buruan kanpoko hotzetik ihesi, sutondoan, begiak ixten ari zaizkidala. Ametsak... Hori bai mundu ideala: amesgaiztoak inoiz ez dira errealitatea bezain txarrak; amets onak, aldiz, beti egunerokoa baino hobeak. Ondo lo egin!

KALE INKESTA

Zer hartzen duzu kontuan jostailuak erosterakoan?



MARGA
ESTEVEZ
ARRASATE

Eurek zer eskatzen duten hartzen dut kontuan eta irakasleari ere galdetzen diot ea ze jostailu duten gustukoen.



RUBEN
LOPEZ
GASTEIZ

Erabilgarria eta didaktikoa izatea hartzen dut kontuan. Nire txikitako esperientzian ere oinarritzen naiz.



ALBERTO
CARBALLO
ARRASATE

Adinaren arabera aukeratzen ditut jostailuak. Txikienari, adibidez, ez dizkiot didaktikoak erosten.



AINHOA
SANCHEZ
ARRASATE

Hezigarriak eta entretenigarriak izan daitezela, eta irudimena lantzekoak. Adinari ere erreparatzen diot.

HANDIK ETA HEMENDIK

Ama
Extremadura

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatino/

Espainiako Konstituzioa onartu zutenean, 1978an, extremaduraren artean inor gutxik izan zuen gogoan noizbait etorri zitekeen autonomiarik.

Zer zenik ere. Eta, zerbait izatekotan, euskaldunen eta katalanen amets gaiztoren bat edo.

Gaur egun, oster, ikaragarri zail da aurkitzea Extremadura osoan autonomiaren aurka hitz egingo duenik.

Atzo bertan, Cáceresen, alboan izan nuen senatari-ohi sozialistak zioenez: "Autonomia da Extremadurak azken ehun urteotan izan duen gauzarik onena".

Segurutik, Euskal Herria eta Katalunia izan ez balira, egun indarrean dagoen espainiar autonomia-estatua ez litzateke 1978an sortu izango.

Baina, geroztik, erabaki hura onerako baino ez da gertatu espainiarrik gehienentzat eta orain

nekez legoke lehengora itzultzerik.

Eta ez euskaldunek eta katalanek ez luketelako onartuko, madrildarrek edo izan ezik beste inork ez lukeelako nahi izango baino.

Bizkaiko zein Gipuzkoako "probintzia traidoreetan" sarri uste izan dugu frankismoak ez zuela gurekin ondo jokatu baina, ekonomiaz behintzat, beste hainbat herrialdetan gurean baino dezente gehiago jasan behar izan zuten diktaduraren ardurarik eza, Extremaduran esaterako.

Franco hil zenean, Extremadurako azpiegiturarik gehiena XIX. mendekoa zen artean, eta, eskolan, Las Hurdes eskualdea irakatsi ziguten Espainia atzeratu, txiro, behartsu eta ez garatuaren sinbolotzat.

Gaur egun, oster, Extremadurak -biztanlez Espainiaren %2,4 izan arren eta lurraldez %8- energia berriztagarrien %35 kontsumitzen du.

Horrez gainera, osasun-zerbitzu publiko eredugarria du, aintzindaria da teknologia berrietan, nekazaritza-industria

garatuaren jabe da eta orain 25 urte inork amestu ez zezakeen errepide-sarea du.

Betiko demagogoek besterik esan arren, inork jakitzekotan extremadurarrak dakite autonomia-sistema Estatu zentralizatua baino askoz ere solidariagoa dela.

Izan ere, ahaztu egin zaigun arren, Francoren diktadura -oinarrizko askatasun-eskubideak ukatzeaz gainera- mendetan izan den erregimenik insolidarioena izan zen.

Egun ez dago emigrazioerik Extremaduran.

Jon Maia bertsolariaren edo Begoña Gil lehendakariaren emaztearen gurasoek ez lukete gaur etxetik alde egin beharrik izango.

"Ama Extremadura aita Zamoratik / abuela ta abuelo haiek aurretik. /

Herri hontan sustraitzen asmatzeagatik, / nik'e maita dezaket guztien gainetik. / Euskeraz badakit / bertsoz darabilkit / dena zuengatik / halaxe dagokit / denek kantatu dute nere ahotik".

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Monika Belastegi
Sailakako arduradunak Leire Kortabarría (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Iker Barandiaran
Maketazioa Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Zoritz Martin, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiarez
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketak Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
goienaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 1697-3542
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

QJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
E-10, 472-1. Inprimaketa Sailburuordetza

HERRIAK



Pedro Iturbe Antzuolako alkatea zinta mozten; ondolan, Julen Bengoetxea, eta atzean Iñaki Ugarteburu. | A.E.

Barruko ekintzak egiteko gunea inauguratu dute

- Egubakoitzean inauguratu zuten eskolako jolaslekuko aterpea
- Hormigoizko harmailak egin dituzte, 160 lagunendako

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

"Herriar guztiak pozik gaude", azaldu zuen Pedro Iturbe alkateak inaugurazio ekitaldian. Izan ere, egubakoitza pozik egiteko moduko eguna izan zen antzuolarrendako. Eskolako jolaslekuko aterpea inauguratu zuten.

Modu honetan, barneko kirola egiteko eremua izango dute Antzuolan. "Aprobetxatzeko eremua" izango dela gaineratu zuen alkateak: eskolako umeez gain, herriko gainerako erakundeek

ere euren ekintzak egiteko balioko duela azaldu zuen.

Inaugurazio ofiziala

Eguerdian egin zuten inaugurazio ofiziala. Udal ordezkari guztiak elkartu ziren; horiez gain, Jaur-laritzako Hezkuntza Saileko Gipuzkoako ordezkari Julen Bengoetxea eta Diputazioko kirol zuzendari Iñaki Ugarteburu izan ziren inaugurazio ekitaldian. Gainera, proiektua aurrera ateratzeko finantziak jarri duten

Kutxa eta Matz-Errekako ordezkariak; eta, aterpea egin duen Egaralur enpresako ordezkariak ere izan ziren ekitaldian.

Zinta moztearekin hasi zuten ekitaldia. Ondoren, Antzuolako txistularien laguntzarekin jolaslekura sartu ziren. Han, hitza hartu zuten ordezkariak.

Bidelagunak

"Proiektuarekin hasi ginenean garbi ikusten genuen kanpo finantziak beharko genuela", azaldu zuen

Iturbe alkateak. "Bidean lagunak topatu ditugu eta hori eskertzekoa da. Pozik gaude emaitzarekin. Herriar guztiak pozik gaude eta aprobetxatzeko eremua izango da", esan zuen alkateak.

Diputazioko Kirol zuzendararen hitzetan, "urrats garrantzitsua" eman dute kirol azpiegiturei dagokienez. "Aspalditik dago frontoia, baina denok dakigu herri txikietan eskola inguruko instalazioek sekulako garrantzia dutela", gaineratu zuen.

Eskolako zuzendariaren hitzak

"Eskertu gura dut udaletxekoak, eurak mugitu direlako hau posible izan dadin. Eskolako guraso eta ikasle guztien izenean, eskerrik asko", esan zuen Pantxike Arin Antzuolako eskolako zuzendariak inaugurazio ekitaldian. Gaineratu zuen: "Konpromiso txiki bat eskatzen dizuet hau zaintzeko, urteetan disfrutatu dezagun".

Egubakoitz arratsaldean eskolako haurrek jolasak eta txokolatada izan zuten aterpea behar bezala inauguratzeko.

Aterpea datutan

Alvaro Perez de Amezagak egin du proiektua eta bere gain egon da obra zuzendaritza. Udalak 520.251,57 eurotan esleitu zizkion lanak Egaralur enpresari.

Aterpearen azalera 1.466 metro koadrokoa da. Estalkiak aluminiozko txapa dauka kanpoaldean eta izeizko egurra barrualdean. Euriaz eta haizeaz babesteko polikarbonato zelularrezko kanpo-inguratzailea du. 160 lagunendako harmailak egin dituzte.



Eskolako jolaslekuko aterpea. | JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK

"Proiektuarekin hasi ginenean garbi ikusten genuen kanpo finantziak beharko genuela"

PEDRO ITURBE | ALKATEA

"Konpromiso txiki bat eskatzen dizuet hau zaintzeko, urteetan disfrutatu dezagun"

PANTXIKE ARIN | ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Denok dakigu herri txikietan eskola inguruko azpiegiturek sekulako garrantzia dutela"

IÑAKI UGARTEBURU | KIROL ZUZENDARIA

goienakluba

Abantailaz
betetako kluba!

AZAROKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



LIBURU

SORTA BAT

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zkra.

SKUN-FUNK-EKO
KAMISETA+POLTSA

Bidali KLUBA KAMISETA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zkra.



skunkfunk

UMEENTZAKO
PUZZLEA

Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zkra.

ERREMEIXUAK
DVD-A

Bidali KLUBA DVD
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zkra.

AITZOROCK-ERA
SARRERAK

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zkra.

SARI NAGUSIA
AZAROA-URTARRILA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

26 HAZBETEKO
TELEBISTA

- 26"-ko TFT-LCD pantaila.
- TDT integrado.
- HDMI.
- USB 2.0



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZA mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena
Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu
bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzeko. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hauen
zuzentzeko edo ezereztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Ekitaldiaren aurretik abesbatzarekin kantatu zuten protagonistek —ezkerretik hasita bigarrena eta hirugarrena—. | J.A.

ANTZUOLA

Ekitaldi hunkigarria, Olabarria
eta Pildaini esker ona emateko

35 urtez Antzuolako abesbatzan abestu izanagatik egin zieten ekitaldia

JOKIN BEREZIARTUA | ANTZUOLA

"Oso ondo egon da ekitaldia. Larregikoa izan da akaso, ez genuen halako ekitaldi handirik espero; hunkigarria izan da benetan". Umiltasunez jositako hitz horiekin deskribatu zuten atzo Salbador Olabarriak eta Luis Pildainek Antzuolako abesbatzan 35 urtez egindako lanagatik herritarrek egin zioten esker on ekitaldia.

Antigua elizan izan zen, Santa Zezilia ospatzeko mezaren eta abesbatzaren saioaren —argazkian— ondoren. Pildainek egun horretarako espresuki egin zieten haba-nera nabarmendu zuen: "Izugarri

hunkigarria izan da", esan zuen. Udalak lore sorta bana eta plaka oroigarri bat eman zieten.

Bizitza osoa kantuan

Abesbatzan 35 urte egin badituzte ere, bizitza osoa egin dute kantuan Olabarria eta Pildainek. Koroan 60 bat urte daramatela adierazi ziguten. Simon Artola-zabal organo-jotzailea izan zuten irakasle; gogoan izan zuten musika munduan barneratu zituen pertsona. Bestalde, ahotsak uzten dien bitartean, abesten jarraituko dutela adierazi zuten. Esker on ekitaldia ez zen luzea izan:

11:00etan hasi zen meza eta 12:00ak pasatxo kanpoan zeuden elizara bertaratutako herritarrek, salda beroaz gozatzen.

Herri osoaren esker onaren ostean, Ongi-Etorri jatetxean bapo bazkaldu zuten lagunekin eta familiakoekin.

Elizaren atarian harrapatu genituen protagonistak, lagunez inguratuta. Bada, eurekin solasean ginela, hainbat herritar hurbildu zitzaizkien 35 urtetan egindako lanagatik zoriontzeko: "Horrela segi urte askoan", adierazi zien emakume batek, besarkada bana ematen zuten bitartean.



ESKORIATZA

JOSETXO ARANTZABAL

Ardoa edatera,
jende ugari

Azken urteotako ohiturari eutsita, zapatu iluntzean Ardo Eguna egin zuten Eskoriatzan, Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik; eta oraingoan ere arrakastatsu. Hotzari aurre eginez, 300 bat lagun batu ziren ardoa eta pintxoak dastatzera eta nahikoa lan izan zuten horiek guztiak zerbitzatzen; izan ere, 170 ardo botila zabaldu zituzten eta 460 pintxo banatu. Orain Aitzorrotzekoak lan eta lan dabilta Aitzorrock jaialdiaren azken prestaketa lanak egiten; eta datorren urterako plangintza egiten dihardute.

ARRASATE

San Andres kulturaz, jakiz, musikaz eta langintzaz bete eta jantzi dute asteburuan

Auzo alkatetzak aspaldiko azoka berreskuratu eta ekitaldi ugari gehitu dizkio



A.CABALLERO/R.VITA
AUZOTARRAK

"Oso ideia ona da antzinako jaia berreskuratzea. Egitaraua gustatu zaigu, baina onena jatekoa da. Gainera, kulturak nahastea oso ideia ona da. Urtero antolatu beharko lukete".



JUAN CARLOS LASAGA
KALETARRA

"Pena da hotza egitea eta krisian egotea, horrek jende gehiago hurbildu eta erosketak gehiago egitea mugatu du. Dena dela, oso ideia ona da halako jai bat berreskuratzea".



Mota askotako artisau saltokiak (argazkian, egur lanketa) eta ikuskizunak izan dira asteburuan. | JOSETXO ARANTZABAL



JUAN CARLOS BAÑUELOS
AL-ANDALUS

"Auzotarren erabakiz, aspaldiko jaia berreskuratu dugu eta gero eta ekintza gehiago egiten ditugu. Jendea etorri da eta pozik dagoela dirudi; halakoak ez dira galdu behar".



MAIDER ALZELAI
ARTISAU

"Oso ideia ona da auzoan halako jaiak egitea; eta kultura desberdineko jendeak bere produktu eta ohiturak erakustea. Jende arteko nahasketa eta elkar ezagutza oso ona da".

IKER BARANDIARAN | ARRASATE
San Andresetan, elurra oinetan esamolde zahar batek eta horixe bera, hotz handia, izan da San Andresko azokak asteburuan izan duen oztopo bakarra. Ekitaldi ugari egin dituzte, auzoa asko girotu dute eta jende dextente ibili da horren bueltan.

Hala, auzo alkatetzak orain dela bi urte berpiztu zuen antzina auzoan egiten zuten azoka; eta auzoan eta herrian elkarrekin bizi diren kulturen bestelako

jaki, ohitura eta ikuskizunak gehitu zituzten. Aurten ere apustu bera egin dute, baina egun bakarrean ezin, eta bi egunetan banatu dituzte ekitaldiak.

Kulturen nahasketa

Zapatuan artisau eta gastronomia saltokiak jarri zituzten: Andaluziako, Extremadurako, Aragoiko eta bestelako jakiak eskaini zituzten. Artisauek, berriz, larrua, artilea, bitxiak, pilotak, txalaparta, egurra, jostailuak eta beste.

Horrez gain, dantza ikuskizunak, chirigota emanaldiak eta beste izan ziren. Domekan, berriz, eguraldiak lagunduta, jende gehiago hurbildu zen. Ekin Emakumeak elkarteak taloak egin zituzten, euskal dantzak izan ziren eta baita bertso-saioa ere.

Antolatzaileak oso pozik daude asteburuak izan duen harrearekin eta egindako kultura arteko nahasketarekin: "Bestelako ohiturak ezagutzeko oso-oso baliagarria da".



ARETXABALETA

IKER BARANDIARAN

Hotzari aurre egiteko jaia

Atxabaltako Gazte Ekimenak *Gazteketan* leloarekin Gazte Eguna egin zuen zapatuan. Gaztetasunak hotza gaintzen duela erakutsi zuten. Hala, goiz partean ibilaldia egin zuten Urkulu eta Larrino inguruetan. Horren ostean, luncha, txikiteoa eta herri bazkaria. Iluntzean, berriz, Elektrotarangak (argazkian) giro polita jarri zuen erdigunean; eta gauean Kale Eginez, Disorders eta Never Surrender musika taldeek emanaldi borobilak egin zituzten pilotalekuan. Gazteentzat (eta bestelakoentzat) egun desberdina izan zen zapatukoa; helburua lortuta.



BERGARA

JOSETXO ARANTZABAL

Aranzadiko ikasle ohien bilkura

Aurten Aranzadi ikastolak 40 urte bete ditu eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Horien artean, herenegun, zapatua, Bergarako ikastolako hainbat ikasle ohiek bazkaria egin zuten Seminarioko jolaslekuan. Lagun talde polita batu zen eta haien sasoiko istorio asko izan zituzten berbagai. Ondo jan, dantzaldiak gozatu eta iluntzean poteoan jarraitu zuten batutakoek.



Gelma gunean, erreka begira dagoen orubean eraiki behar dute jolasparke berria. | UBANE MADERA

Udaberrirako jolasparke berria izango da Gelma gunean

Gainontzeko urbanizazio lanak ere apiril-martxorako bukatu gura dituzte

UBANE MADERA | ARRASATE

Hasi dira Arrasaten jolasparke berria eraikitzeko lanak egiten. Gelmaren orube zaharrean eraiki-ko dute, etxe berriak egiten dabil- tzan gunean, erreka begira.

Bada, inguru hura egokitze-ko lanak egiten hasi dira, eta egu- notan zeruari begira dabil- tza. Izan ere, hurrengo pausoa zoru- iragazgaiztea da, eta hori ezin daiteke egin atertutarte.

Urbanizazio lan guztiak

Behin obrak hasita, datorren urteko lehen hiruhilekoan buka- tuko dituzte, inguruko urbaniza- zio lan guztiarekin batera, "dena den, eguraldiak asko baldintza- tuko du hori", adierazi dute Obe- nerreka eraikuntza etxetik. Izan ere, Gelmako etxeak eraikitzen dabilen enpresaren eta Arrasa- teko Udalaren arteko hitzarme- naren arabera, han ipini behar

duten oinezkoen zubia bezala, jolasparkea ere Obenerreka enpre- sak eraiki behar du.

10 zuhaitz eta beste

Jolasparkeari berari dagokionez, 1.500 metro koadroko azalera izango du, bi gun- berde eta, besteak beste, 10 zuhaitz: "Geriz- pea ematen duten zuhaitzen bila ibili gara, eta seguru aski 10 haritz handi ipiniko ditugu".

Horrez gainera, beste gun- berde txikiago bat, iturri bat, eta zela ez, eserita egoteko jarlekua ere ipiniko dizkiote jolasparkeari: "Jarleku berezia izango da, zirkunferentzia erdia egingo du- na eta, gainera, bizkaraldea bi aldetara izango du: jokoei begira, batetik; eta bestetik, aukera izan- go da, eguzkiaren arabera, eguz- kigunea edo gerizpegunea auke- ratzeko".

Zelako jolasak

Eta jokoei dagokienez, klasikoak eta berriak uztartuko dituzte. Klasikoen artean, txirrista, zibu- rua pasabide eta eskailerekin eta balantzaka ibiltzeko jokoak izan- go ditu. Berrien artean, berriz, "gura dugu ipini kanasta magikoa. Hiru irteera-zulo ditu; hala, baloia kanastan sartu, eta ez dago jaki- terik nondik aterako den", kon- tatu dute Obenerrekakoek.

Larraitz Arando | Udaleko Sexologia Zerbitzuko arduraduna

"Antisorgailu edo kontrazepzio naturala da Billings metodoa"

Kontrazepzio naturala lantzeko ikastaroa antolatu du Udaleko Sexologia Zerbitzuak

U.M. | ARRASATE

Bada Billings izeneko metodo bat, emakumearen gorputzaren funtzionamendua hobeto ezagu- tzea ardatz duena. Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuan metodo horren gaineko ikastaroa antolatu dute, abendu eta urta- rrilerako. Larraitz Arandok, Sexologia Zerbitzuko arduradu- nak, xehetasunak eman ditu Arrasate Irratian.

Zer da Billings metodoa?

Antisorgailu edo kontrazepzio naturala da. Da nork bere hile- rokoa eta ugalkortasun patroia ezagutzea eta horren arabera nork bere gorputzaren arabera

kontrazepzioa. Nork bere zikloa ondo ezagutzea da kontua. Zikloa- ren arabera, hileko egun gehienak ez dira ugalkorrak, eta koito harremanak izan behar baditugu, medikamentu bako kontrazepzioa egin daiteke.

Baina fidagarria da?

Osasunerako Mundu Erakundearen arabera, oso, %97,2; baina jakin behar da ondo erabiltzen, nork bere hilerokoa ondo ezagutzen. Hala, ikastaroa antolatu dugu, hilean behin emakumeen hilerokoaren jarraipena egiten laguntzeko.

Zelan funtzionatzen du?

Gorputzak ematen dizkigu sin- toma batzuk jakiteko ugalkor

gauden edo ez. Sintoma horiek emakume bakoitzak bere grafikoan apuntatuko ditu, eta gero hilean behin elkartuko gara eta metodoan aditu direnek (sendagile, ginekolo- go, psikologoak) egingo dute bakoitzaren jarraipena.

Norendako ikastaroa da?

Gura duten emakume guztienda- ko. Informazioa gura duen edo- zeinek Sexologia Zerbitzura dei dezake: 943 25 20 66. Eta bestela, lehenengo saioan (abendua- ren 14, Kulturaren, 18:00etan) hitza- dia egingo dugu, kontatzeko zer den Billings, zertarako erabiltzen den eta zelan ikasten den; eta ikastaro horretan izena eman daiteke urtariletik aurrera izan- go den formaziorako.

Zertan desberdintzen da Billings metodoa Ogino metodotik?

Ez dakit ondo desberdintasuna. Neu ere banoa ikastarora. Bada- kitena da Billingsen tenperatura eta mukositatea zaintzen dituela. Hona datozen adituek [Billings zentroa Portugaleten dago] ere lantzen dituzte beste metodo batzuk, baina hau ei da fidaga- rriena; horregatik erabaki dugu hau lantzea. Azkenean, inportan- teena da ondo erabiltzea, beste



Larraitz Arando. GOIENKARIA

metodo batzuk moduan. Adituek esaten dute hiru hilabetea ikas daitekeela ondo erabiltzen, baina badaezpada ipini dugu 5-6 hila- beteko jarraipena. Nik uste dut metodo bat ondo erabiltzeko serio- tasuna behar dela, diziplina edo inplikazioa. Dena den, bestela ere interesgarria da. Erabili edo ez, beste kontu bat da. Baina jakitea gure gorputza noiz dagoen ugalkor, ze ordutatik ze orduta- ra, interesgarria izan daiteke edozein emakumerendako.

Martuteneko presoendako material bilketa

U.M. | ARRASATE

Gabonak badatozela eta, Mar- tuteneko kartzelan dauden preso- en aldeko materiala batuko dute: barruko jantzi berriak, tabako gorria eta txiskeroak, turroi biguna, hortzetako pasta eta eskuilak, gutun-azalak eta zigiluak, galtzerdiak eta beste. Azaroa- ren 29an eta 30ean eta aben- duaren 1ean, 2an eta 3an eraman behar da Caritas era- kundearen bulegora (Iturriotz, 43), 17:00etatik 19:00etara.

Bestalde, eta parrokiak antolatuta, baita ere, krisiare- kin lotutako hitzaldia izango da martitzenean, azaroaren 30ean. *Valores de la economía social en la reciente enseñanza de la Iglesia* da izenburua. Hiz- laria, berriz, Jose Ramon Pas- cual da, Alfaro-ko parrokoa.

The Hot Wok: bolada bortitzak eragin zituen haizezko saio bikaina gaztetxean

Talde gasteiztarrek ikuslegoa gozaraztea lortu zuen *Kooltur Ostegunak*-en azaroko azken saioan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
The Hot Wok taldeak itxi zituen azaroko *Kooltur Ostegunak*. Talde gasteiztarra ohikoa ez den proposamenarekin etorri zen gaztetxera. Jazza ardatz, eta funky ukitu nabariekin, New Orleansko doinuak ekarri zituzten bi ordu inguru iraun zuen saiorako. Jende aldetik ondo, eguen euritsu eta hotz baterako: 86 sarrera saldu zituzten Kooltur Ekintzakoeak.

Hasiera ikusgarria izan zen: ikuslegoa agertokira begira zegoe-la, ohiko sarreratik sartu ziren, txaranga baten antzera. Emanaldi osoan zehar egiten dutenarekin izugarri gozatzen dutela argi utzi zuten, ikuslearekin sekulako gertutasuna erakutsiz. Detalle kuriosoa utzi ziguten, gainera: jende larregi ez dauden kontzertuetan ohikoena da jende gehiena atzealdean kokatzea. Bada, The Hot Wok-ek ikuslea lehen iladetara ekartzea lortu zuen.

Musikalki ere emanaldi borobila: tuba, saxofoi eta tronboiarekin haizezko bolada bortitzak eragin zituzten, beti ere inprobisaziorako ahalmen infinitua erakutsi zuen perkusionistak gidatuta. Umorea ere ez zen falta izan, batez ere Raul Romo saxofoi-jolearen eskutik. Kritikaren bat egitekotan: ahotsaren falta igarri zen zenbait unetan.

Garagardo pitxerraren 'hileta'
Emanaldia hasi bezain modu ikusgarrian amaitu zuten. New Orleansen, hiletetan, musika tristearekin lurperatzen dituzte hildakoak eta behin lurperatuta, musika alaia jotzen dute. Bada, hildakoa garagardo pitxer batekin irudikatu zuten, pitxerra ikusleen artean banatuz. Garagardoa amaitu arte musika tristea, baina amaitu zenean... haizezko instrumentuek eragindako azken bolada bortitza, eta hurrengora arte.



The Hot Wok taldeak egiten dutenaz izugarri gozatzen dutela erakutsi zuen. | JOKIN BEREZIARTUA



Jon & Sugramas taldea, pose argazki baten. | JON & SUGRAMAS

Jon & Sugramas, abenduko lehena

Kooltur ekintza taldeak jakinarazi du dagoeneko abenduko egitaraua; lehena Jon & Sugramas taldea izango da. Arima Beltza taldeko abeslari eta Uek taldeko bateria jole izandako Jon Gurrutxagaren proiektu berria da: ingelesez eta euskaraz abestutako rocka nagusi, bluesaren eragina ere nabari da, baina batez ere 70eko hamarkadako rocka dute ardatz.

Abenduan beste lau kontzertu izango dira: hilaren 9an La Pulga, 16an Mikel Urdangarin, 23an NaizRoxa eta abenduaren 30ean, azkenik, Fiachras.

Haur eta gurasoak dantzari jartzeko ikastaroa abian jarri du Txatxilipurdik

Zapatuan hasi ziren ikastaroarekin; abenduaren 18ra arte zapaturo elkartuko dira Kultureteko Loramendi gelan, ordu eta erdiko saioak egiteko

J.B. | ARRASATE
Txatxilipurdi elkarateak aurrera segitzen du gurasoen eta haurren arteko hizkuntza transmisioa sustatzeko ekimenekin. Izan ere, badira hilabete batzuk haurrendako aisialdiaz gain, gurasoendako ere hainbat ekintza antolatzen dituztela. Hala, Gurasolandian hain arrakastatsua izan zen dantza ikastaroa antolatu dute berriro.

Dantzari, "oso gustura"
Izan ere, Txatxilipurdik ohar baten bidez jakinarazi duenez,

haur eta gurasoak "oso gustura" ibili ziren euskal dantzen ikastaroan azaroaren 2tik 7ra iraun zuen Gurasolandian; eta horregatik erabaki dute ekimenarekin jarraitzea. Lehen saioa zapatuan egin zuten, eta printzipioz, abenduaren 18ra arteko zapatu guz-

tietan elkartuko dira. Hau da, abenduaren 4an, 11n eta 18an izango dira hurrengo saioak.

Ordu eta erdiko saioak
Esandako moduan, dantza ikastaroa haur eta gurasoendako da, eta ordu eta erdi iraungo du saio bakoitzak. Kultureteko Loramendi gelan elkartuko dira, 11:00etatik 12:30era. Saioek bi alde izango dituzte: alde batetik, haur eta gurasoek elkarrekin dantzari ikasteko dantza motak ikasiko dituzte; eta bestetik, gurasoek Txerri dantza ikasteko aukera izango dute. Argibide gehiagorako deitu 943 79 54 46 telefonora.

Sarrerak salgai Doka taldearen 'Iragana iragan' ikusteko

Doka antzerki taldeak Amaian estreinatuko du *Iragana iragan* antzezlan, abenduaren 18an eta 19an. Mondragon hiria sortu zeneko 750 urteurrena gogoratzeko umorezko lana da, Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzia. Emanaldi horietarako sarrerak salgai daude Zabaleta eta Lore lurrin dendetan. Sarrerak zenbaki gabeak dira eta 10 eurotan saltzen dira. Amaia-ko leihatilan erosi ahalko dira, baina aurrez erostea gomendatu dute.

Bihar amaitzen da Txikilandian begirale izateko izenematea

Urtarrilaren 2, 3 eta 4an Musakolako kiroldegian egingo den Txikilandia Gabonetako parkean lan egiteko begiraleak behar ditu Txatxilipurdik. Bada, izena emateko epea bihar, azaroak 30, amaitzen da. Lan jarduna izango da 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta kurrikuluma kultura@txatxilipurdi.com helbidera edo Txatxilipurdiren egoitza berri- ra bidali behar da: Nafarroa etorbidea 23.

150 bat argazki jaso dituzte Ekinekoek

Ekin Emakumeak elkar- te gure ibarreko emakumeen iraganeko eta egungo argazkiez osatutako erakusketarako argazkiak biltzen dabil. 150 bat erretratu jaso dituzte: ondokoa, esaterako, 1955koa da eta Oñatiko Sotera Arrizabalaga, Felipa Biain eta Maria Kartokoa ageri dira ortuan lanean.



EKIN EMAKUMEAK



Udal lorezainak zuhaitzak aldatzen. | ENKO AZKARATE

Gaixotutako albizia zuhaitzen ordezkariak jarri dituzte

Gaixo egoteaz gain, ondoko etxeei traba ere eragiten zieten zuhaitzok

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Aurreko astean buru-belarri jardun dute Udaleko lorezainek Ibargarai kalean. 18 zuhaitz aldatu dituzte, hain justu, gaixo zeuden albiziak (*Albizia julibrissin*)

ordezkatu dituzte madariondo ornamentalengatik (*Pyrus Calleryana Chanticleer*). Albiziak duela 20 bat urte landatu zituzten, etxebizitzok eraiki eta ingurunea urbanizatu zutenean.

Udal lorezainen esanetan, gaixo egoteaz gain, bada beste arrazoi bat zuhaitzok aldatzeko: ondoko etxeetarako traba bilakatu zirela. Hori kontuan izanda, landatu dituzten madariondoak

neurri txikikoak dira eta etxeetako fatxadara ez dira iritsiko.

Ustelduta handia

Kendu dituzten 18 albizien gaitasunari dagokionez, udal lorezainek azaldu dute arazo fitosanitarioa zutela: "Alde batetik, usteldura handia zuten, eta beste aldetik, izurritea". Hain zuzen ere, zorri mota bat zuten zuhaitzok: "Zorriok bizkarretik isurtzen dute koipe antzeko bat, oso itsas-korra, melaza deritzona, eta horrek zikindu egiten ditu inguruan dauden autoak, eserlekuak, zorua..."

Baina zuhaitzarengan ere badu eragina melazak: "Zuhaitzaren hostoetan, enborrean... hau da, zuhaitzean oro har itsatsita geratzen den melazan, *negrilla* deritzon onddo bat finkatzen da eta horrek kolore beltza ematen dio zuhaitzari". Eta udal lorezainek gehitzen dute: "Horrek estetikoki zuhaitzari itxura txarra emateaz gain, oxigenatzeko arazoak sorrazten dizkio zuhaitzari, horrek duen ondorio txarrekin".

DATUA

18

ZUHAITZ

Gaixo zeuden 17 gaixoak eta ezezagun batzuek apurtutako beste bat dira ordezkatu dituzten zuhaitzak.

Euskarazko produktuen katalogoa kaleratu dute

M.B. | BERGARA

Azken urteetan egin duen moduan, euskarazko produktuen katalogoa argitaratu du Udalak beste hainbat udalekin batera eta, aurtan ere, herriko ikastetxeetan banatuko da. Dena den, eskolatik jasotzen ez dutenek udaletxean eta kultura etxean ere izango dute eskuragarri. Interneten ere ikus daiteke: <http://www.katalogoa.org/fitxategiak/dokumentuak/produktuak/katalogoa10-11.pdf>.

Katalogoan ageri diren produktu horiek guztiak jada merkatuan daude salgai, eta interesatuak bere ohiko saltoki edo liburu-dendetan eskuratu ahal izango ditu.

Katalogoak hainbat helburu ditu, besteak beste, gurasoei ikusaraztea euskaraz eskolatzearekin bakarrik ez dela ziurtatzen haurra euskaldun osoa izango denik, gurasoei aditza ematea aukera handiak daudela haurrari euskal heziketa emateko, nahiz eta eurek euskaraz ez jakin eta haur eta gazteei aisialdiko euskarazko produktuen eskaintza ezagutaraztea.

Igeri elkartekoek denboraldia hasi zuten zapatuan

Denboraldiari hasiera eman zioten Bergara Igeri Elkartekoek aurreko zapatuan. Ez zioten nolanahiko hasiera eman: 80 bat igerilari eta guraso batu ziren Agorrosin Ekintza Gunean, eta, talde argazkia egin eta gero, elkarrekin bazkaldu zuten guztiak. Animuak, bada, igerilari guztiei, ez dute eta lan makala izango aurrerantzean.



BERGARA IGERI ELKARTEA

OHARRAK

HAINBAT IKASTARO KZGUNEAK ABENDUAN

Dagoeneko iragarri dituzte abenduan emango dituzten ikastaroak. *Lana eta familia bateragarri* egin delako ikastaroa izango da lehena, abenduaren 1ean, 11:00etatik 13:00etara. Abenduaren 2an, berriz, *Zuhaitz genealogikoa* ikastaroa egongo da, 11:00etatik 13:00etara; eta abenduaren 2an, baita ere, Youtube ikastaroa egongo da, 18:00etatik 20:00etara.

ERRETIRATUENDAKO LUNCH LASAI TOKIN

Urtero bezala emango dute eta herriko erretiratu guztiak daude gonbidatuta. Abenduaren 8an izango da, 12:30etik 14:00etara.

VALDEZCARAYRA ESKIATZERA

Udal Gazteria Sailak antolatu du, 12-18 urte artekoendako, eta abenduaren 18an izango da. Materiala etxetik eramaten dutenek 20

euro ordainduko dituzte eta materiala alokatuko dutenek, 40 euro. Izenematea da azaroaren 29tik abenduaren 10era arte, biak barne, kultura etxean, 943 77 91 60.

REAL-ATHLETIC PARTIDURAKO AUTOBUSA

Realzaleak taldeak antolatu du, abenduaren 5ean Anoetan jokatuko den partidurako. 12:00etan abiatuko da autobusa Fraisko zuritik. Sarrerak salgai jarriko

dituzte hilaren 29an, Deportivo tabernan, 2 euroren truke.

1985EAN JAIOTAKOEN AFARIA ABENDUAREN 11N

Tartufo jatetxean egingo dute. 19:00etan batuko dira Bule tabernan poteorako eta 20:30ean abiatuko da autobusa, azoka ondotik, Tartufo jatetxera. Izenematea abenduaren 4an bukatuko da. Horretarako sartu behar dira 35 euro Kutxako zenbaki honetan:

3035 0009 17 0090086995. Harremanetarako deitu 609 71 32 82 telefono zenbakira (Odei).

ARANZADIKO DBH-KOAK POLBOROIAK SALTZEN

4. mailako ikasleak hasi dira polboroiak eta bonboiak (14 euro) eta *Argia* egutegiak (8,50 euro) saltzen ikas bidaiarako dirua lortzeko. Eskuratzeko, bidali behar zaio dirua irakasleari seme-alaben bidez.

Semaforoak abian dira Ozaetako zubian

Irailetik zentzu bakarrekoa izan ondoren, berriro zabaldu dute Ozaetako zubia ibilgailuendako

EDU MENDIBIL | BERGARA
Irailaren hasieratik itxita egon ondoren, asteon zabaldu dute berriro ere ibilgailuendako Ozaetako zubia. Eta, zubiaren estutasuna kontuan izanda, ibilgailuen joan-etorria errazteko semaforoak jarri dituzte zubiaren bi aldeetan. Hain zuzen ere, iraileko ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak semaforook jaretzea. Aho batez onartutako erabakia izan zen. Aurrerantzean beraz ezin izango dira autoak aldi berean bi norabidetan igaro zubi zaharretik.

Oinezkoei lehentasuna
Esan bezala, aurreko astean jarri zituzten martxan Ozaetako zubiko semaforoak, egun batzuk lehenagotik jarrita bazeuden ere. Udaleko iturriek adierazi dutenez, oinezkoei lehentasuna ematea izan da helburua, bideko ordenazioa egiten denean gertatzen den bezala.

Lasa jatetxearen ondoko zubi ezagunak 6,5 metro inguruko zabalera dauka udal brigadak emandako informazioaren arabera. Orain, lehendik zegoen oinezkoendako tartea zertxobait zabaldu dute udal langileek eta bide bakarra egokitu dute autoendako. Oinezkoak babesteko hesitxoak jarri zituzten bere garaian aipatutako zubian, baina aurrerantzean tarte dezente zabalagoa izango dute zubia oinez zeharkatzen dutenek.

Ozaetako babestutako etxeak
Ozaetan egin berri dituzten babestutako etxebizitzek eragina izan dute zubia ibilgailuendako itxita izateko. Hain zuzen ere, aipatutako etxeen ur saneamendua egin ahal izateko lurra altxatu behar izan dute inguru horretan eta horrek hainbat aldaketa sortu ditu zirkulazioan azken hila-beteotan. Eraikitako etxeak urbanizatutako 5.190 metro karratu inguruko orubean eraiki dituzte. Era berean, etxebizitzaren ondoan haurrendako jolas tokiak egokitu dute. Bergarako Artzamendi eraikuntza enpresak burutu ditu aipatutako lanak.

Ozaetako babestutako etxebizitzetara dagokienez, zozketara 27 bideratu dituzte eta gainerako bost etxebizitza duela hiruzpalau urte Zubiaurren eraitsi zuten



Oinezkoen babeserako, semaforoei esker, bide bakarrekoa izango da Ozaetako zubia. | E.M.

eraikin bateko bizilagunak kokatzeko zuzenduko dituzte.

Bien bitartean, Zubiaurren hainbat etxebizitza eraikitzen

dihardute aspaldian eta etxe berrien behealdean zein errepi-dearen bestealdean espaloia jarriko dute. Auzotarrek behin

baino gehiagotan azaldu dute euren kezka kaleko zenbait puntutan, espaloien faltagatik, arriskua nabaria delako.

Aparkalekuak Martokon

Martoko gainean 27 aparkaleku egin berri dituzte. Auzotarrek aspalditik aldarrikatu izan dituzte aparkaleku gehiago, eta joan den irailean ekin zien lanei Udalak. Aparkalekuak egin ahal izateko mendi magalari zatia jan egin behar izan diote, Xabier Yeregui udaleko arkitektoak egindako proiektuan oinarrituta. San Antoniotik Martokora joanda, aldapan, 14 aparkaleku jarri dituzte eta tartetxo baten ondoren, beste 13 plaza egokitu dituzte. Aurrekontua 70.800 euro ingurukoa izan da eta Sasoi Eraikuntzak burutu ditu lanak. Esan bezala, 27 autorendako lekua egongo da aurrerantzean, horietako bat mugikortasun zailtasunak dituzten gidariendako. Aparkaleku gabezia eta errepi-dearen estutasuna izan dira urteetan auzotarren aldarrikapena eta neurri batean behintzat arazo hori konpontzera dator amaitu berri duten proiektua.



27 aparkaleku plaza egokitu dituzte. | E.M.



Egoera onean dauden jostailuak batzea da helburua. | ARTXIUBOA

Jostailu eta oinetako bilketa egingo dute abenduaren 18an

Aranzadi Ikastolak deitu du, Gabonetako sentsibilizazio kanpainaren barruan

E.M. | BERGARA
Bergarako herriari deialdia zabaldua, Aranzadi Ikastolak jostailu eta oinetako bilketa egingo du datorren abenduaren 18an. Ikastolako ikasleek lantzen duten eskubide, betebeharrak eta arduren gaiarekin zerikusia duen ekimena da Aranzaditik deitutakoa eta hango hezitzaileen ustetan Gabonak sasoi aproposa izaten da haurrak beste batzuen egoeraz sentsibilizatzeko, "guk ditugun aukerak ez dituzten haurren inguruan, alegia. Ematen ikasteko bidea da; ezer jaso gabe,

duten zerbaiti uko egiten ikasteko bidea".

Batutakoa, Argentinara
Esan bezala, abenduaren 18an, 11:00etatik aurrera egingo dute bilketa, San Martin plazan. Gurasoek seme-alabei aukera egiten diezaieketela adierazi dute Aranzadi Ikastolako arduradunek. Era berean, egoera onean diren jostailuak batu nahi dituzte. Beraz, ez dute balio izorratutako jostailuek edo piezaren bat faltan dituztenek. Abenduaren 18a baino lehen ere jasoko dituzte jostailuak

eta oinetakoak Aranzadin. Batutako materiala Argentinako Jose C. Paz herrira bidaliko dute gero.

Logotipo lehiaketa
Bestalde, Aranzadiko 40. urteurrenaren harira, logotipo lehiaketa deitu dute ikasleen artean eta Maddi Mujika izan da irabazlea. Lanak Herri Lagunak kalearen ondoko sarreraren daude ikusgai, bihar arte. Eta egubakoitzean, abenduaren 3an, ikastolen eta Euskararen Eguna ospatuko dute Aranzadin, goizetik.



Arropa islatzailea erabiltzeko gomendioa egiten duen karteletako bat Urrutxun ipini dute, hilerriaren atzealdean. | MIREIA BIKUÑA

Arropa islatzaileak erabiltzeko gomendioa ematen duten seinaleak

Kartelak ipini dituzte Urrutxun, hilerriaren atzealdean, eta San Pedron

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Arropa islatzaileak eroateko gomendioa egiten duten kartelak ipini dituzte udal arduradunek. *Adi! Arropa distiragarria erabili* dioten bi kartel ipini dituzte Zañartu aldera doazen bi errepideetan: seinale bat jarri dute herrira sartu aurretik, San Pedro aldera hartzeko bidegurutzearen ondoren. Hain zuzen ere, lehenengo zubira heldu

aurretik. Bigarren seinalea Urrutxun dago, hilerriaren atzealdean, Zuazola zubira ematen duen errepidearen hasieran. Biak ipini dituzte Zañartu alde- ra, hau da, Olaterantz.

Arriskua txikitzea

Seinaleak jarrita bete gura duten helburua da Olate aldera oinez edo bizikletaz doazen herritarrei gogoraraztea arropa islatzaileak

erabili behar dituztela. "Asko goizeko lehen orduan edo arratsaldeko azken orduan ibiltzen dira, argi gutxi dagoenean, eta susto galantak izan ditugu", esan digute hango bizilagunek. Hain justu ere, eurek egindako eskaerari erantzunez jarri dituzte seinaleak. "Ezer larririk gertatu aurretik pentsatu genuen beharrezkoa zela halako kartelak ipintzea", esan zigun Garagartzako

auzo-alkate Joseba Guridik eskaera egin zutenean.

Albarritza inguruan

Arriskutsua da Albarritza baserri ingurua. Zuhaitz asko dago eta ikuspena txikia da. Inguru horretan kontu handiz ibiltzeko aholkatu dute Udaltzaingotik. Aurretanzean, beraz, gomendagarria izango da arropa islatzailearekin ibiltzea Garagartzau auzoan.

Ilustrazio tailerra egingo du Mikel Valverdek eguaztenean

Mikel Valverde gasteiztarak ilustrazio tailerra egingo du etzi Udal Liburutegian, 18:00etan. 7 urtetik gorako neska-mutikoendako tailerra da eta, sarrera mugatua denez, gonbidapenak hartu beharko dira kultura etxeko bulegoetan edo sarreran. Arbelan pertsonaiak nola sortzen dituen erakutsiko du.

Argentinako lokala eta edukiontzia itxita daude, oraingoz

Argentinako elkartasun taldeak lokala eta edukiontzia itxi egin ditu. Hori horrela, oraingoz ezin izango da materialik utzi han. Lokala eta edukiontzia gainezka dituzte, eta hango kaxak ondo antolatu arte itxita egongo dira biak ala biak herritarrendako. Euren asmoa da abendu hasierarako zabaltzea.

Argazki lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna bihar

Aloña Mendiko mendi sailak VII. Mendia eta Natura lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko azken eguna bihar da. Erretratuak Aloña Mendi egoitzan utzi behar dira (Atzeko kale 18-20). Argazkiak aurkeztu behar dira 40x50 zentimetroko euskarrian; eta, atzean jarri beharko da gaia eta argazkiaren izena.



MIREIA BIKUÑA

Akordeoi lehiaketara joango dira

Jose de Azpiazu musika eskolako 12 ikaslek Arrasateko akordeoi lehiaketan parte hartuko dute abenduaren 4tik 8ra. Hastapen mailan lehiatuko dira Alaitz Atxa, Maddi Santa Cruz eta Aitor Gartzia; eta A mailan gainerako guztiak: Chiara Fabian, Nora Freire, Aitana Gereta, June Goenaga, Maddi Guridi, Eider Herraez, Oihane Lazkanoiturburu, Eider Murgiondo eta Nerea Zelaia. Argazkian daude guztiak, Arantzazu Bikuña eta Idoia Elkorobarrutia irakasleekin.

Saharako kanpalekuaren kontrako erasoaren eta tratu txarren kontrako mozioak onartu zituzten

Eguenean egin zuen udalbatzak azaroko osoko bilkura, eta aztertutako gaien artean bi mozio onartu zituzten, aho batez: alde batetik, Saharako Agdaym Izik kanpalekuaren kontra egindako eraso gaitzesten duen mozioa; eta, beste alde batetik, emakumeen aurkako tratu txarren kontrako mozioa. Lehen mozioan, udalbatzak Marokoko Gobernuari eskatu dio giza eskubideen nazioarteko eskubideak, NBEk Mendebaleko Saharako gatazkari buruz emandako ebazpenak eta Marokoko legeria bera "errespetatzeko". Bestalde, tratu txarren kontrako mozioan, Berdin Sareak egindako adierazpenarekin bat egin zuten.

OHARRAK

KINTADA

1965. urtean jaiotako oñatiarrek kintada egingo dute, bost urteren ondoren, Etxe Aundi jate-txean. Hilaren 11n elkartuko dira bazkaltzeko, 14:30ean. Interesa dutenek 30 euro sartu beharko dituzte 30350005360051043269 kontuan lehenbailehen. Informazio gehiago gura duenak 636 85 75 63 edo 689 23 11 93 telefonora dei dezake.

DEIALDIA

Gipuzkoako Zero Zabor taldeak hitzaldia egingo du abenduaren 1ean kultura etxean, 19:00etan. Talde horretako kideek zaborraren gainean egingo dute berba: zaborrarekin zer egiten den edo zer egin daitekeen, atez ateko zabor bilketari buruz egingo dute berba. Zaborraren arazoarekin kezkatuta dauden guztiak gonbidatu gura ditute hitzaldira.

ARETXABALETA

Egunotan hasi dute Urkuluko bidegorriaren bigarren zatia

Etxaluze baserri ingurutik Areantza auzoko bidegurutzeraino joango da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA
Urkulu urtegia inguratuko duen bidegorriaren bigarren zatiko lanak hasi dituzte egunotan. Sasoi Eraikuntzak enpresa nafarrak egingo ditu, hain justu lehenengo zatia egin zuenak. Eta eraikitze lanei hasiera emateko ingurua gertatzen ibili dira azken egunotan, hau da, urtegi inguruko hesia kentzen.

Etxaluze baserri ingurutik, hau da, urtegiko ibilbidearen sarreratik, Areantza auzoko bidegurutzeraino joango da bigarren zatia –eginda dagoenarekin bat egin arte–. Urtegi albotik egingo dute, errepideari zati bat kenduta. 355 metro luze izango ditu eta lanak 125.560 eurotan esleitu dituzte –Aldundiaren eta beste erakunde batzuen laguntzekin.

Itxura berdina
Bigarren zati hau eginda dagoena baino estuagoa izango da. 2,60 metro zabal izango ditu, errepideari ezin diotelako gehiago kendu. Hala ere, aurrekoaren itxura berdina hartuko du, hau da, gorri kolorea daukan mikroaglomeratuzko lurzorua eta baranda berdinak bide guztian: bata itsuendako gida-lagun eta bestea gurgildun aulkian doazenendako. Areantzako bidegurutzetik Goroeta auzoraino doan zatiaren lanak uda partean egin zituzten eta oraindik seinale eta argibide panel batzuk jarri barik egon arren zabalik dago.

Mantentze lanetarako laguna
Urkulu egokitu bakarrik ez, zaintzea ere gura du Udalak eta horretarako lagun bat hartzekotan dabil. Urtegi inguruko mantentze lanak egingo ditu horrek eta bertako baserritarren bat izatea gura dute. Lan horietarako beharrezko makinak erosiko ditu Udalak, eta langilearen kontratazioa Eusko Jaurlaritzarekin dabil negoziatzen. Asmoa da hitzarmena sinatu eta lehenbailehen hastea lagun bat lanean.



Urtegi inguruko bidegorria egiteko gertatze lanak. | M.A.

ARETXABALETA

Gaztelekuko hiru film labor Gaztezulo lehiaketan

M.A. | ARETXABALETA
Atxagazte gaztelekuko gaztetxoek egindako hiru film labor aurkeztu dituzte *Gaztezulo* aldizkariak antolatutako I. Bideo Lehiaketara. Abenduan jakingo dute horiek saririk jaso duten.

Ezin onartu film laburra zazpi lagunek egin dute: Olatz Iriarte, Jone Uribeetxeberria, Garazi Ortiz de Mendibil, Ainhoa Azarola, Oihane Iturbe, Irene Alvarez eta Eider Gabilondo. Gazte-

lekuan eta plaza inguruan kokatu dute lagunaren arteko gorabeheren istorioa.

Bakarrik ez filma beste neska koadrila batek egin du: Elene Lopez, Jessica Amozarrain, Nere Uribetxebarria, Alba Etxeandia, Ainhize Barrainkua, Ainhoa Azarola eta Eider Gabilondo. 5,31 minutu irauten du eta herriko hainbat kaletan eta kanposantuan egin dituzte grabaketa lanak hildakoekin eta espirituekin zeri-

kusia duen istorioa girotzeko. *Ez nuen egin behar...* filma, ostera, bost mutilek egin dute: Aitor Elorza, Iker Tena, Dani Sanchez, Goratz Romero eta Lander Peña. Zuri beltzean grabatu dute eta musikaren bitartez kontatu dute istorioa.

Film labor horiek Gaztezulo aldizkariaren webgunean ikus daitezke, baita gustukoak bozkatu ere: www.gaztezulo.com/bideo_lehiaketa.

ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolako handitze prozesua onartuko dute gaur

Ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak gaur, hilak 29, (18:00). Bi gai dituzte aztertzeko, biak hirigintza kontuekin zerikusia dutenak. Batetik, orain aste batzuk hasiera emandako Kurtzebarri eskolaren handitze prozesua behin behinean onartuko dute, alegaziorik ez delako egon. Gero Jaur-laritzara bidaliko dute onarpen hori, txostena egin dezan.

Bestetik, Bedarretako San Migel auzunean igogailuak jarri gura izanez gero bete beharreko baldintzak onartuko dituzte. Horren inguruko azterlana egin du Udalak eta etxebizitzaren aurrealdearen itxura errespetatzeko baldintzak ezarri ditu. Eta galderen-dako tartea ere egongo da.

ARETXABALETA

Azken pintxo potea eguaztenean, urtarrilaren 12a arte

Pintxo potea abian jarri zuten tabernariak erabaki dute datorren eguaztenean, abenduak 1, denboraldiko azkena egin eta ekimena etetea. Izan ere, abenduan hainbat jai egun daude, zubia lehenengo eta Gabonak gero, eta jaiok iraun bitartean ez dute pintxo potearen eskaintzarik egingo. Udazkenean jende kopuruak behera egin du, batez ere eguraldi txarra egiten duen egunetan –joan den eguaztenean esaterako–, baina tabernariak pozik daude ekimenak izan duen erantzunarekin.

Datorren urtean, urtarrilaren 12an hain zuzen eman-goto diote jarraipena berriro.

ARETXABALETA

'Larria, kutsakorra, mendebaldekoa' antzezlanaren eguaztenean

Euskararen Nazioarteko Eguna girotzen hasteko Tartearen antzerki taldeak *Larria, kutsakorra, mendebaldekoa* antzezlanak dakar eguaztenean, abenduak 1, Arkupera (19:30). Sarrera 4 euro da.

Mikel Martinez aktoreak komedia giroko bakarrikzeta eskainiko du. Patxo Telleriak eta Jokin Oregik idatzitako testua dauka oinarri antzezlanak eta bakarrikzeta izan arren, hiru pertsonaia egingo ditu Martinezek. Osasun publikoa eta negozioa gai dituen lana barrea sorrarazteko idatzia izan dela diote egileek, eta era berean, ukitu "basatia" duela.

ESKORIATZA

Dantzak, jolasak, gaztaina erreak eta txokolatea egubakoitzean, Euskararen Eguna ospatzeko

M.A. | ESKORIATZA
Euskararen Nazioarteko Eguna da egubakoitzean, abenduak 3, eta egitarau polita gertatu du Udalak aurten ere, gure hizkuntzaren eguna gogoan izan eta ospatzeko. Herritarrek –edozein adinetakoek– egindako marrazkiak, leloak, bertsoak, poesiak... zintzilikatuko dituzte egunean zehar, Herriko Plazan gertatuko duten gunean. Eta guzti horiek gai bakarra izango dute: euskara.

Ospakizuna bazkalostean hasiko dute Luis Ezeiza herri eskolako ikasleek euskal dantzen erakustaldia eginda (15:30). Gaztaina erreak eskainiko dizkiete gero elkartutakoei (16:00) eta jandakoan ume eta gazte-txoek jinkana eta jolasak izango dituzte (16:30). Arratsaldeko ekitaldiak agurtzeko txokolate beroa banatuko dute (17:30). Eta gauean (22:30) *Zortzi begi* antzezlan eskainiko du Gilkitxaro taldeak, Unibertsitatean.



Euskararen aldeko aldarrikapena egiten iazko ekitaldian. | ESKORIATZAKO UDALA

ESKORIATZA

Truke programaren bitartez etorritako indigenei agur esateko jaialdia egingo dute egunean

M.A. | ESKORIATZA
Garabide elkartearen bitartez Truke programarekin gure artean diren Amerikako hainbat herrialdetako ordezkariak agurtuko dituzte egunean, abenduak 2, herriko plazan egingo duten ekitaldian. Umeen-dako jolasak egongo dira lehenengo (17:00) eta Udala eta herri indigenetako ordezkarien arteko trukea egingo dute gero (18:30).

Zortzi lagun
Hizkuntza gutxituak dituzten Amerikako herrietako ordezkariak egon dira Garabidek

gonbidatuta: Guatemalako mayak, Ekuadorko kitxwak eta Bolibiako aimarak. Zortzi lagun guztira, batzuk hizkuntzalariak, beste batzuk irakasleak eta ikertzaileak ere bai.

Programa horren helburua izan da euskararen berreskurapenean egin diren esperientziak ezagutaraztea, horiek euren errealitateekin alderatzea eta harako egitasmoak martxan jartzeko lehenengo hausnarke-tak egitea. Gainera, hiru herrialdetako indigenek euren hizkuntzen egoeraren berri eman dute egunotan hainbat erakunde eta elkarteren aurrean.

ESKORIATZA

Euskarazko jostailuen eta liburuen erakusketa dago astean

M.A. | ESKORIATZA
Gaur, hilak 29, hasi eta eguenera bitartean euskarazko liburuen erakusketa egongo da bibliotekan (16:30-20:00). Jostailuen erakusketa, ostera, Tortolis ludotekan jarriko dute (16:30-19:30).

Bertatik bertara ezagutzeko
Gabonak ate joka dira eta umeei oparitzeko produktuen publi-

zitatea asko ugaritzen da egunotan; horregatik Udaleko Euskara eta Kultura Sailetak arduradunek euskarazko zenbait jostailu eta liburu bertatik bertara ezagutzeko aukera eman gura diete gurasoei beste behin. Gainera, bai bibliotekan, bai ludotekan, hezitzaileak egongo dira gurasoen eta umeen galderak erantzun eta kezkek argitzeko.



Antzuolan 2009an ospatutako Debagoieneko Trikitilarien Eguneko irudi bat. | GOIENA

ARAMAIO

Debagoieneko Trikitilari Eguna maiatzaren 7an ospatuko da Aramaion

Trikikalejira elkarteak arduratuko da antolaketaz eta aurrekontua 12.000 euro inguru izango da; herri bazkarian 600 lagun inguru batzea da asmoa

EDU MENDIBIL | ARAMAIO

Debagoieneko Trikitilari Eguna Aramaion ospatuko da datorren maiatzaren 7an. Trikikalejira elkarteak arduratuko da antolaketaz. Gaur egun adin guztietako 60 lagun inguru batzen dira herriko trikitilarien inguruan; Josune eta Gurutze Uribarren ahizpek ematen dituzte eskolak, Josunek panderokoak eta Gurutzek soinu-nukoak, hain justu.

Jon Andoni Axpe Trikikalejirako ordezkariak emandako informazioaren arabera, Trikitilari Egunak 12.000 euro inguruko aurrekontua izango du eta erakundeengana joko dute dirulaguntza eske. Aurten Soraluzen ospatu da Debagoieneko Trikitilari Eguna eta orduan 600 bat lagun batu ziren herri bazkarian. Aramaion beste horrenbeste batzea da asmoa. Herri bazkaria

frontoian egingo dute maiatzaren 7an. Batzorde ezberdinak eratu dituzte laster antolaketaz arduratzeko.

Bestalde, joan den azaroaren 12an ospatutako herriko trikitilarien egunean, Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaiko landetxetan asteburua igarotzeko hiru sari zozketatu zituzten. 1.752 zenbakiaren jabea agertzeke dago oraindik. Salturralde baserriko Elejaldetarrei egokitu zitzaizen sari bat eta bestea Nafarroa aldera joan zen.

Eta zozketa berria abian jarri du Trikikalejirak. *Egin ezazu zoriontsu herri oso bat* lelopean, itxitako errepidea zein egunetan zabalduko duten asmatzen duenak Dukiena jatetxean bi lagunendako afaria irabaziko du. Euro baten truke ohiko tokietan eskura daitezke kinielarako txartelak.

Hitzaldia bihar

Alaiak erretiratuen elkartearen eskutik, *Osasun mentala, nola zaindu* izenburuko hitzaldia izango da bihar, martitzena, kultura etxean, 17:00etan. Gaixo mentalen eta haien senideen Asafes elkarteko kideak etorriko dira hitzaldia egitera.

Plan Orokorra: azken egunak

Aramaioko Plan Orokorren gaineko alegazioak aurkezteko aukera daukate herritarrek abenduaren 13ra arte. Bien bitartean, kontsultak egiteko aukera dago udaletxean, martitzenero, goizez. Txanda eskatu beharra dago aurretik udaletxean, 945 44 50 16 telefono zenbakian. Plan Orokorra osoko bilkuren aretoan jarri dute ikusgai eta, aldi berean, www.aramaio.org webgunean eskuragarri dago.

ondo lotuta jarri dute, luzaroan izan dadin bertan.

Nabarralden jasota

Ekimen horrek Nabarralde elkartearen atentzioa eman du eta webgunean jaso dute www.nabarralde.com. Nabarrako Estatuak berpiztu da Leintz Bailaran izenarekin idatzi dute artikulua eta hona bertan esandako batzuk: "Gasteiztik itsasalderantz doan bidean dago Gatzaga, bere arbasoen lan gatzgileari izena zor dion herria. Arima nabarra hiribilduko bizilagunengan berpiztu da: horregatik, haien herriko sarrerako atearen harrian grabatuta dagoen Gatzelako ezkutua- ren gainean, Nabarrako bandera jarri dute".

ELGETA

Dementzia gaixotasunei buruzko ikastaroa hasiko dute gaur 9 lagunek

Eguenean 35 lagunek eman zuten odola; hurrengo ateratzeak udaberrian izango dira

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bizikasi elkartetik dementzia gaixotasunei buruz antolatutako ikastaroak aurrera egingo duela konfirmatu dute. Bederatzi lagunek eman dute izena eta gaur 17:00etan emango diote hasiera ikastaroari kultura etxean. Herritar gehiago interesatuta egonez gero, oraindik ere plaza libreak gelditzen dira. Gaur eguerdira arteko epea zabaldu dute izena emateko. Interesatuak 943 76 93 94 telefono zenbakira deitu behar dute. Ikastaroa Adindu enpresako bi lagunek emango dute. Saioak astelehenean eta eguaztenetan egingo dituzte 17:00etatik 19:00etara. Prezioa 15 euro da.

Odol-ateratzeak

Odol-emileen elkarteko kideak, berriz, pozik dira egunean 35 odol-emale joan ziren-eta odol-ematera. "Kopuru polita da. Eguraldi txarra zen eta horrek ere lagunduko zuen, baina pozik egoteko moduko kopurua da", esan du elkarteak Elgetan duen ordezkari Maria Asun Agirrek. Urtean bitan igotzen da sendagile taldea Elgetan odol-ateratzeak egitera. "Urrian egin ohi ditugu udazkeneko odol-ateratzeak eta aurten atzeratu egin digute txanda, baina ondo joan da", esan du Agirrek. Hurrengo hitzordua apiril alderako egingo dute. Bitartean, Bergarara jaits daitezke Elgetako odol-emaleak odola ematera.



Elgetar taldea, egunean, odola ematen. | L.Z.

ANTZUOLA

Parte-hartze prozesuko azken batzarra, bihar

Udalari helaraziko zaion proposamena landuko dute biharko batzarrean, 19:00etan Orlanen

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Antzuolako Udalak Aldundia- rekin elkarlanean jarritako parte-hartze prozesuko azken batzarra egingo dute bihar, azaroak 30. 19:00etan izango da batzarra, Orlanen. Armarría abiapuntutzat hartuta, dagoe- neko hiru batzar egin dituzte eta batzar horietan, besteak beste, antzuolarren baloreei, gertaerei eta identitate kole- tiboak osatzen duten ezaugarri- ei buruzko hausnarketa egin dute.

Parte-hartze prozesu hau dinamizatzen ibili den Prospre- ktiker aholkularitza taldeak, orain arte egin diren bileretan landutako proposamenak aur- keztuko ditu biharko batzarrean. Ondoren, Udalari helaraziko zaion proposamena adostuko dute.

Udalari proposatutakoa ez da loteslea izango.

Udaleko ataria

Prozesuaren nondik norakoak ezagutu nahi ezkerro, Antzuola-ko Udaleko atarian www.antzuola.com, Antzuola parte hartzen atalean, prozesuaren inguruko informazioa dago eskuragarri. Edonork ikus deza- ke hor dagoen informazioa eta edonork egin ditzake prozesua- ren gaineko ekarpenak.

Herritarren parte-hartzea

Udalak garrantzitsu jotzen du herritarren inplikazioa par- tehartze prozesuan zehar; beraz, Udalak herritar guztiak gonbi- datzen ditu biharko batzarrean. Herritarrei protagonismoa eman nahian, politikariek ez dute parte hartuko batzarrean.

LEINTZ GATZAGA

Nafarroako bandera dago herrian, Nafarroa izan zela aldarrikatzeko

San Inazio kale sarrerako arkuan dago bandera; herritar batzuek jarritakoa da

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Aspalditxoan dago Nafarroako bandera Gatzagan. Ez du jarri Udalak, herritar batzuek baizik, eta Nafarroako erresumako parte izan zela herria aldarrikatu gura dute horrekin.

Herria inguratzen zuen harre- siko sarrera garrantzitsuaren arkuan –San Inazio kalean– dago kateak dituen bandera, eta erre-

pidetik pasatzerakoan ere garbi ikusten da. Hain zuzen, arku horretan Gatzela Leongo armarría dago, Gatzelako erregeek jarrita- koa, eta horren gainean jarri dute Nafarroakoa, "aurretik Nafarroa- ko parte izan zela gogorarazteko". Haizeak hara eta hona ibili izan du bandera hori, ia apurtu artean, baina herritarrek eutsi egin gura izan diote aldarrikapenari eta

BRICO DEPÔT

BRIKOLAJEA ETA ERAIKUNTZA

Komuneko altzariak **PREZIO BAXUETAN EGUNERO**

"Cadiz" ALTZARIA
Zuria. Marmolezko entzimera. Helduleku metalikoak. Ispilua eta kornisa halogenoa barne. Zabalera 80 x sakonera 55 cm. (504977/3063/3189/2738)

BERRIA

125€

"Cosmos" ALTZARIA
Zuria. Alboetan intxaurreko koloreko akabera. Ateak eta edukiontzi-kaxoia helduleku metalikoekin. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 60 x sakonera 46 cm. (504981/4218/4234)

BERRIA

179€

"Artic" ALTZARIA
Intxaurreko koloreko akabera. Helduleku metalikoak. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 80 x sakonera 39 cm. (504985/86/87)

BERRIA

199€

"Parma" ALTZARIA
Intxaurreko koloreko akabera. Gris antrazita koloreko kaxoia eta helduleku metalikoak. Ispilua barne. Zabalera 80 x sakonera 46 cm. (504994/95)

BERRIA

199€

"Snow" ALTZARIA
Zuria. Konpas hidraulikodun ate eraisgarria eta kaxoia. Helduleku metalikoak. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 80 x sakonera 46 cm. (504988/4225/4235)

BERRIA

225€

"Quebec" ALTZARIA
Zuria. Konpas hidraulikodun ate eraisgarria eta kaxoia. Helduleku metalikoak. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 80 x sakonera 46 cm. (504243/26/35)

BERRIA

269€

"Carrera" ALTZARIA
Intxaurreko koloreko akabera. Helduleku metalikoak. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 80 x sakonera 39 cm. (504992/87/93)

BERRIA

285€

"Luna" ALTZARIA
Zuria. Gaietako kaxoia sifoi-babesarekin. Helduleku metalikoak. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 80 x sakonera 46 cm. (504990/5003/4991)

BERRIA

299€

Txorrita ez dago barne.


Gure prezio guztiek BEZa barne dute eta baliozkoak dira azaroaren 26tik abenduaren 2ra arte.

**BRICO DEPÔT DENDAK ESTATUAN: ALCALÁ DE HENARES • ALQUERÍAS N. P. • CORVERA DE ASTURIAS • CREVILLANT
GETAFE • HUÉRCAL DE ALMERÍA • JEREZ DE LA FRONTERA • LAGUNA DE DUERO • OLÍAS DEL REY • PARETS DEL VALLÈS • PULIANAS
QUART DE POBLET • SAN ANTONIO DE BENAGÉBER • VALDELAFUENTE • VIANA • VITORIA • ZARAGOZA**

BRICO DEPÔT

GASTEIZ
GORBEIA MERKATARITZA-GUNEA
A-622 errepidea, 9. km
Etxabarri Dibina. Zigoitia
TEL. 945 46 05 10 FAXA 945 46 05 27
Astelehenetik larunbatera 9:00etatik 21:00etara etenik gabe
www.bricodepot.es

A KING SHER GROUP COMPANY



KIROLA

BORROKA ARTEAK

Uarkapera joandakoak aho zabalik geratu ziren han ikusitako erakustaldiarekin

- ▶ Arrasateko Aikido Elkarteak 10. borroka jaialdia antolatu zuen
- ▶ 500 euro inguru batu zuten Pakistanera bideratzeko



Zapatuan Uarkape pilotalekuan hartutako irudiak. | JOSETXO ARANTZAAL

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Erantzun ona izan zuen zapatuan Arrasateko Aikido Elkarteak antolatutako erakustaldiak. Uarkapera joandako 300 bat ikusleak aho zabalik geratu ziren han ikusitakoarekin.

Borroka arteen erakustaldia egin zuten. Arrasateko Aikido Elkarteak, Donostiako Tai chi taldea, Bergarako Shinkyokushinkai eta Beasaingo Shurinjikempo taldeak elkartu ziren Uarkapen. Talde bakoitzak bere borroka artea erakutsi zuen.

Ondoren Arrasatekoen txanda etorri zen. Aikido elkarteak gaur egungo garaietara egokitu dagoen borroka artea erakutsi zuten.

Mata irakasleak adierazi bezala, "hiltzeko sortutako" borroka da Aikido. Gaur egun, ordea, egokitu egin dute eta defentsarako erabiltzen da. Eraso bat jasan ezker, erasotzailea menderatzea da aikidoren helburua, beti ere erasotzailea hil edo ezer apurtu barik. "Min eman daiteke, baina ez diozu inongo lesiorik

uzten", azaldu zuen Mata irakasleak erakustaldi amaieran.

Gaineratu zuen, beste borroka arte batzuetan ez bezala, Aikidon ez dela indar fisikorik behar. "Edonork egiteko moduko borroka da. Norbaitek gehiago ezagutu edo praktikatu gura badu, etor dadila Musakolako kiroldegira. Han entrenatzen dugu", azaldu zuen.

Filmetan moduan

Hainbat momentu ikusgarri izan zituen zapatuko erakustaldiak.

Adibidez, borrokariak kristal zati txikiz osatutako pasagune batetik pasa behar izan zuten. Min hartu barik eta lesionatu barik egin zuten hori. Filmetan moduan. Ikusleak aho zabalik geratu ziren.

Ondoren, Bergarako taldeak egurrezko oholak, adreiluak eta hormigoizko harriak apurtu zituzten eskuarekin. Beste edonork min hartzeko moduko ariketak egin zituzten; eurak, baina, ez ziren lesionatu. Diziiplina handiz egin zuten erakustaldia.

Azkenik, borroka arteak emakumearen defentsarako ere balio duela erakutsi zuten. Bikote batek egin zuen erakustaldia: gizona emakumea erasotzera joan zen, baina emakumeak indarra erabili barik gizona menderatu zuen.

Dirua Pakistanerako

Erakustaldiko sarrerekin batutako dirua Pakistanera bideratuko dute, udan izandako uholdeetan kaltetuak izan ziren herri-tarrak laguntzeko.

Tai chirekin hasi ziren

Lehenengo erakustaldia Donostiako Tai chi elkarteak egin zuten. Adinez nagusiak izan arren, Uarkapen erakutsi zuten borroka arte gogorra eta diziiplina handikoa dela taichia. Jose Manuel Matak azaldu zigun amaieran: "Erakustaldia egin dutenak nagusiak izan arren, edonork egiteko moduko diziiplina da".

JOSE MANUEL MATA | IRAKASLEA

"Erasotzailea menderatzea da aikido, baina erasoan ezer apurtu barik"

Arrasateko Aikido Elkarteak irakasle da Jose Manuel Mata. Zapatuko erakustaldiak izandako erantzunarekin pozik zegoen; uste baino jende gehiago joan zela adierazi zigun ekitaldi amaieran. **Zer da aikido?**

Borroka arte bat da, edo hainbat borroka arteren nahasketa dela esan daiteke. Egin dena da borroka arte horiek eguneratu, egokitu gaur egungo garaietara. Borroka arte ia denak orain dela 500 urte ingurukoak dira. Hiltzeko sortutako artea da; orduan esan izaten

zen, "kolpe bat, hildako bat" zela. Gaur egun horrek ez dauka zentzu askorik, izan ere norbait hiltzen baduzu bada-kizu nora zoazen.

Erasotzailea menderatzean datzan, baina ezer apurtu barik.

Eraso bat jasan ezker, erantzuna izan behar da erasotzailea menderatzea baina hausturarik sortu barik; min eman daiteke, baina ez diozu ezer apurtzen.

Kirola da?

Ez, ez da kirola, filosofia edo diziiplina bat dela esan daiteke. Kirola da kara-



Jose Manuel Mata. | A.E.

tea, judoa... baina aikido ez. Orain dela urte askoko borroka arteak direnez, eta gaur egun jendea hiltzen ibiltzeak ez duenez zentzurik, kirol arauetara eta lehiakortasunera egokitu dira.

Pakistango uholdeetan kaltetuta-koak laguntzeko erabiliko duzue dirua?

Bai, gobernuz kanpoko erakundeei laguntzeko erabili izan dugu erakustaldiko dirua. Oraingoan, Pakistanerako batu dugu dirua. Nik uste nuena baino jende gehiago etorri da eta pozik gaude alde horretatik.

Norbait aikido zer den jakiteko gogoz baldin badago, nora joan behar du?

Etor daitezela Musakolako kiroldegira, gogo handiz gaude eta jende berria hartzeko. Gogoia bakarrik behar da borroka arte honetan, ez da fisikoki inongo baldintzarik behar aikido praktikatzeko.

Urtean zehar, zenbat erakustaldi egiten dituzue?

Urtean erakustaldi bakarra egiten dugu Arrasaten. Baina, beste erakustaldi batzuk ere egiten ditugu, erakunderen batek eskatu ezker.

DATUA

500

EURO

Sarrerekin lortu zuten dirua 500 euro inguru da. Hain zuzen, diru kopuru hori bideratuko dute Pakistanera.

79 debagoiendarrek amaitu dute Donostiako 33. nazioarteko maratonia

- Debagoiendarren artean lehena Unai Narbaiza antzuolarra izan da
- Emakumeei dagokienez, lau debagoiendarrek amaitu dute lasterketa

Sailkapena

ANTZUOLA

52	Narbaiza Gantxegi, Unai	02:40:01
379	Larrañaga Kortabarria, Mikel	02:59:19
1395	Aranguren Ezkurra, Asier	03:29:48
1781	Errasti Jauregi, Josu	03:44:18

ARETXABALETA

469	Zubiria Murguzur, Mikel	03:03:24
682	Extebarria Gutierrez, Oier	03:10:51
692	Duran Garcia, Anastasio	03:11:02
1035	Guenechea Mondragon, Igor	03:20:38
1400	Aquirre Gabilondo, Igor	03:29:14
1958	Del Palacio Alvarez, Luis Mari	03:51:18
2114	Alvarez Imaz, Eneko	03:59:00

ARRASATE

93	Sarabia Ugarte, Iker	02:46:13
372	Osinaga Astigarraga, Jon	02:59:17
470	Martinez Perez, Igor	03:02:48
529	Delgado Iglesias, Angel	03:05:57
652	Romero Calderon, Rafael	03:10:18
677	Blazquez Bueno, Angel	03:10:49

686	Rayo Aguado, Javi	03:10:56
725	Etxebarria Etxagibel, Oxel	03:11:55
970	Galan Gomez, Amalio	03:18:49
1030	Larrea Beldarrain, Kepa	03:20:54
1192	Arregi Sagasta, Nere	03:26:04
1203	Arregi Sagasta, Arkaitz	03:26:24
1877	Urriaga Garaitonandia, Iñaki	03:47:08
2120	Ibabe Ruiz De Azua, Unai	03:59:53

BERGARA

71	Elkoro Fernandez, Xabier	02:44:23
88	Arana Oregi, Joxu	02:45:44
111	Moreno Castelo, Edu	02:47:30
133	Garitano Zuazola, Ander	02:49:01
205	Aquizu Barrutia, Jose Antonio	02:53:55
311	Ibarra Moñux, Jabi	02:57:49
376	Agirrebeña Oteo, Iban	02:59:29
440	Moreno Castelo, Jabi	03:01:56
522	Lazkano Bikendi, Xabier	03:05:44
544	Eraña Arrojaibe, Aitor	03:06:58
559	Guridi Alustiza, Martin	03:07:22
605	Lascarain Zubia, Aitor	03:08:40

735	Rodriguez Cuesta, Fer	03:12:22
791	Pagal dai Urresti, Iñigo	03:14:13
908	Urriolabeitia Milikua, Alberto	03:17:10
956	Basauri Gamba, Igor	03:18:47
1154	Lete Aramburu, Josu	03:25:02
1155	Egino Zabaleta, Jesus	03:25:06
1194	Guridi Alustiza, Imanol	03:26:04
1204	Diaz Roman, Jesus	03:26:37
1453	Gartzia Beristain, Asier	03:32:15
1454	Aguirrezabal Beitia, Ramon	03:32:17
1587	Arriola Lazkano, Juan Luis	03:36:06
1601	Azcárate Leturia, Sabino	03:37:35
1603	Anduaga Elias, Jose Mari	03:37:41
1692	San Torcuato Perez, Carmelo	03:40:03
1678	Aranburu Mujika, Basi	03:40:33
1864	Gonzalez Martinez , Joaquín	03:47:11
1882	Lete Larrañaga, Agurtzane	03:47:43
1990	Errasti Opakua, Ander	03:54:27
2062	Juarros Laskurain, Arizt	03:56:49
2059	Larrea Arana, Manuel Jose	03:57:27
2186	Verquizas Nieto, Antonio	04:04:53

ESKORIATZA

100	Lazkano Arana, Igor	02:46:41
1871	Camuesco, Alberto	03:46:45
2239	Agiriano, Ander	04:09:23

OÑATI

219	Jausoro Murgiondo, Ibon	02:54:33
0350	Negreira Cobas, Jose Antonio	02:58:43
454	Osinaga Beitia, Asier	03:02:48
622	Korkostegi Dominguez, Igor	03:09:21
760	Urtaza, Andoni	03:13:21
933	Varela Fernandez, Matias	03:18:12
1225	Iñurrutegi Alzalai, Xabier	03:26:42
1405	Sasiain Diaz De., Arkaitz	03:29:33
1525	Blazquez Diaz, Trini	03:34:24
1709	Murguzur Orueta, Asier	03:41:52
1796	Aiestui Egaña, Rufino	03:44:30
1798	Sancho Orueta, Felix	03:44:52
1941	Aginagalede Astigaraga, Miren	03:50:16
1942	Lukas Etxarri, Imanol	03:50:17
1944	Jausoro Arregi, Ander	03:50:17
1943	Aginagalede Elexpuru, German	03:50:20
2079	Ordiozola Aguirrezabal, Jesus	03:56:24
2397	Larrea Alava, Alberto	04:37:36

ITURRIA: WWW.MARATONDONOSTIA.COM

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Beste behin ere, Debagoieneko atleten presentzia handia izan da Donostiako maratoin. Aurtengoan, 73 lagun iritsi dira Anoetako estadioan jarritako helmugara.

Ibarrekoei dagokienez, onenak izan dira: gizezkoetan, Antzuolako Unai Narbaiza (2:40:01), Bergarako Xabier Elkorro (02:44:23) eta Bergarako Joxu Arana (02:45:44); eta, nesketan, Arrasateko Nere Arregi (03:26:04), Oñatik Trini Blazquez (3:34:24) eta Bergarako Agurtzane Lete (03:47:43) izan ziren azkarrenak.

Hotz handia izan zuten

Eguraldiari dagokionez, hotz handia egin zuen atzokoan; hala ere, euririk ez zuen egin ia lasterketa guztian. Antolatzaileak pozik geratu ziren lasterketak emandakoarekin; zaleak bikain portatu zirela esan zuten.

Behobia Donostia irabazi ondoren, Rafa Iglesias maratoia irabazi eta errekorra egiteko gogoz zebilen; azkenean, baina, bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Elijah Muturi kenyarra izan zen irabazlea, 2:13:19ko denbora eginda. Nesketan, Tihras Enun etiopiarra izan zen azkarrena (2:38:47).

Azkoitian, Varela garaile

Azkoitiko VI. herri lasterketan (10 kilometro) Yera Varela oñatiarra izan zen irabazlea: 30:47ko denbora eginda. Marisol Ramos bigarrena izan zen (37:12).

goienakluba

Abantailaz
betetako kluba!

Olentzero & Co! musikalerako sarrerak prezio berezian. **Nahi?**

Sarrerako
prezioa:

~~15~~ €

Goiena Klubeko
kideentzat*:

10 €

OLENTZERO & CO! MUSIKALA

Eguna: Abenduaren 11n | Ordua: 19:30ean.

Lekua: Arrasateko Amaia Antzokia.

Sarrerak erosteko deitu 943 25 05 05 telefonora.

*Kide bakoitzarentzat bi sarrera.

GOIENA KLUBA | Telefonoa: 943 25 05 05 | e-posta: klub@goiena.com

The image shows a stylized representation of a Goiena Kluba membership card. It features the club's name "Goiena" at the top, followed by "Klubeko Kidea" (Club Member). Below this, there are fields for "Legea" (Law) and "Bereizapena" (Identification), each with a corresponding number. At the bottom right, there is a small QR code or barcode-like graphic.

FUTBOLA

Goiz jasotako golari buelta eman eta merezita irabazi dute mahoneroek derbia

- Zazpigarren minuturako aurretik zen Mondra, bergarrek egindako hutsa Muruak aprobetxatuta
- Bigarren zatian indartsu ateratzen zen Bergara, eta jokoan zuen nagusigoa markagailura eraman zuten

EMAITZA
MONDRA
1-2
BERGARA

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Etxean erregulartasunik lortu ezinda jarraitzen du Mondrak zapatuko derbiaren ondoren; Bergarak, osera, lortu ditu etxetik kanpo denboraldiko aurreneko puntuak, zapatura arte Agorrosinen batuak baitzituen sailkapeneko guztiak.

Oraingoan ere esku hutsik geratzeko bidean izan ziren mahoneroak, partidua hasi eta berehala egin zuen-eta gola Mondrak. Zazpigarren minutua zen: Oier Arregik zela erdian baloia hartu eta eskuin hegaletik ezkerre- bidali zuen kolpe loratuz; baloira parean iritsi ziren Bergarako atzelaria eta korrikaldi luzea eginda zetorren Jon Zabaleta Arrasatekoa; elkarren arteko talkan Mondrak jokalaria ateratzen garaile, eta baloia arean jartzeko moduan geratu zitzaion. Jarri zuen, baina Bergarako atzealdearendako urruntzeko arazo barik; atzelariak, baina, baloiari ematerako orduan, huts egin eta opari geratu zitzaion Muruari, area txikian; fusilatu egin zuen Asier Lopez, bergararren atezaina. Jon Muruamendiaren denboraldiko bigarren gola zuen.

Partiduak zituen minutu apurretan ez zen Bergarakoen antzerako lehenengo hutsegitea, eta Oskar Maiztegiren taldeak larrutik ordaindu zuen hasierako atzealdeko tinkotasun falta.

Lehen zatian beste golik ez

Saiatu zen hurrengo minutuetan Bergara Mondra erasotzen. Markel Ilzarbe nabarmendu zen zeregin horretan; ezker hegaletik egindako saiakeretan oinetan kalitatea duen jokalaria dela erakutsi zuen, nahiz eta lehenengo ordu laurdena betetzerako taldeak egindako jokaldi ederrean bezala azken jaurtiketarekin asmatu ez. Bergararen aurreneko aukera ona falta jaurtiketaz iritsi zen. Area ertzetik jo zuen, indartsu baina ate erdira, Jokin Balzategik; Ander Ruiz de Azuak ez zuen baloia hartzerik izan, baina urrundu egin zuen.

Eta handik gutxira Mondraren erantzuna. Muruak baloi luzea

jaso eta jaitsi, eta oinaren puntarekin indartsu ate aldera, baina kanpora gutxigatik. Mondraren gol bakarrarekin amaitu zen lehenengo zatia.

Aurreneko zati horretan indarrak nahikoa parean egon baziren, bigarreanean gehiago izan zen Bergara. Iban Rodriguez etxekoaren entrenatzaileak ere amaieran zioen ez zuela halako aldaketarik espero mahoneroengandik. Indartsu zelairatu ziren, eta Imanol Cabanillasek eman zuen lehenengo abisua, bosgarren minutuan, area barruan baloi soltea jaso eta gora botata.

Bigarreanean, baina, ez zuen barkatu Cabanillasek. Mondrak erdiko atzelari batek lekua galdu eta zuloa utzi zuen defentsaren erdi-erdian, Bergarako aurrelariak pasea jaso eta gaititu zuen Ruiz de Azua.

Ez ziren, baina, berdinketarekin konformatu, eta ahaleginean jarraitu zuten kanpokoek. Mondraren erdilarik batek buruarekin atzera orraztutako baloia Iñigo Machok jaso zuen atzelarietara abiatu irabazita, baina oraingoan Mondrak atezainak oinekin geratu zuen jaurtiketa; hurrengo jokaldian ere areatik irten behar izan zuen baloia urruntzera.

Bigarreana, falta errematatuta

Laster, 72. minutuan heldu zen urdinen bigarreana: falta jaurtiketa buruz errematatu zuen sareetara Andoni Nafarratek. Bergarak eskura zuen etxetik kanpo aurreneko garaipena lortzea, eta azken arte eutsi zion emaitzari, estutasun asko barik; Mondrak



Izan zuten lehia Mondrak eta Bergarak zapatuan Mojatagin eta, Muruak etxekoak aurretik jarri

ez zuen aukerarik sortu ordutik partidua amaierara. Muruak berak ere onartzen zuen gero: "Nik uste merezita irabazi duela Bergarak". Oskar Maiztegi bergararren entrenatzailea pozik zegoen lortutakoarekin: "Bazen ordua kanpoan irabazteko; gauza bategatik edo besteagatik ez dugu orain arte punturik lortu kanpoan, gaurkoa plaza polita zen eta kostata baina irabazi egin dugu".

Epailearen lanak ere merezi du aipamen bat zapatuan Mojatagin gertatutakoak kontatzera. Ez zen ondo ibili: errazegi geratu zuen jokoa, futboleko ohi-koak eta legezkoak diren kontaktuak ere zigortuz; zenbait jokaldi garbitan huts egin zuen hartutako erabakietan; eta ezer izan ez zuen partiduan –falta gogor bakarra– hamabi txartel ateratu zituen, bost protesta egiteagatik, edo hobeto esanda, epaileak har-

tutako erabakiarekiko desadostasuna azaltzeagatik –gehienetan arrazoiz–, protestak ere ez ziren sutsuegiak izan- eta. Horrelako batean erakutsi zion Kepa Mercaderri bigarren horia, eta Mondrak gizon bat gutxiagorekin jokatu zituen azken minutuak.

Datorren jardunaldian Tolosan jokatu du Arrasateko taldeak: "Entrenatzailea aldatu dute eta azkeneko partiduetan hobeto ari dira; baina gu ere nahikoa ondo gabilta kanpoan, eta irabaztera joango gara", zioen Muruak.

Bergarak, berriz, beste derbi bat izango du asteburuan, Aloña Mendiren kontrakoa, Oskar Maiztegik gisa honetara ikusten duena: "Aloña ez dabil ondo, baina taldea badu eta ez da erraza izango. Gaurkoaren antzerako partidua izango da: tentsio handikoa eta borrokatua".

FITXA TEKNIKOA

Mondra: Ruiz de Azua, Roa (Nuñez, 72. min.), Loiti, Tena, Mercader, Garin, Arregi (Losada, 65. min.), Lander, Murua, Lopez eta Zabaleta.

Bergara: Lopez, Elorriaga (Arruti, 87. min.), Garitano, Arazkonaga, Nafarrate, Agirre, Catalan (Azpiazu, 55. min.), Ilzarbe, Macho (Crespo, 90. min.), Baltategi (Iñurrieta, 55. min.) eta Cabanillas (Ibañez, 62. min.).

Golak: 1-0: Murua, 7. minutuan. 1-1: Cabanillas, 60. minutuan. 1-2: Nafarrate, 72. minutuan.

FUTBOLA

Kolpe galanta, berriz ere, Aloña Mendirendako

Hiru partidua egin dituzte galdu gabe, baina zail segitzen du egoerak Oiartzunekin 1 eta 4 eginda

JULEN IRIONDO | OÑATI

Lehenengo zatian nahikoa txukun ibili ziren oñatiarrak, eta markagailuan aurretik ere jarri ziren; pena berehala lortu zutela berdinketa oiartzuarrek. Hogeigarren minutuaren bueltan iritsi zen 1

eta 0ekoa. Alboko sarea luze ateratu zuten gorriek, Palacinek orraztu egin zuen buruz eta Idigorasek errematea egin. Zutoina jo zuen baloiak, eta Xabi Agirrek bultzatu zuen sarera azkenean. Zoritarrez, baina, minutu bat geroa-

go iritsi zen berdinketa, falta eztabaidagarri baten ondorioz.

Bigarreanean okerrago

Bigarren zati hasieran egin zuten Oiartzungoek bigarren gola; kolpea izan zen gorriendako. Izan zituzten etxekoek ere bigarreana egiteko zenbait aukera polit –larga bat tartean–, baina asmatu ez eta gainera golarekin erantzuten zuten kanpokoek puntuko. Oiartzunen atezaina egotzi egin zuten baloia areatik kanpora eskuarekin ukitzeagatik, baina hori ere ezin izan zuten aprobetxatu.



Aloñak gola egin eta laster lortu zuen berdinketa Oiartzunek. | JOSETXO ARANTZABAL



arren, puntuak mahoneroendako izan ziren azkenean. | JOSETXO ARANTZABAL



IBAN RODRIGUEZ
MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Ez dakit zer gertatzen zaigun etxean puntuak ez ateratzeko. Futboleanez ere ez dugu ondo egiten. Kanpoan, osteraz, gauzak garbiago ditugu agian. Etxean ez dira paseak ateratzen, ez gara baloietara iristen..."



OSKAR MAIZTEGI
BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Urduri edo tentsio barik atera gara eta gola jaso dugu. Baina nik uste gero, lehenengo zatian, Mondra baino gehiago izan gara; eta bigarren zatian garbiago. Berdinketarekin morala hartu dugu eta bigarrena egitea lortu dugu".

FUTBOLA

3 eta 2 galdu zuen Aretxabaletak Anaitasunaren zelaian

Oso gaizki ekin zioten partiduari Aretxabaletako jokalariek, eta konturatzerako ordu erdia betetzerako hiru gol zituzten kontra. Bigarren zatian hobera egin zuen taldeak, eta bi jokalarik gutxiagorekin geratu zen gainera Anaitasuna. Horrela, azken hamar minutuetan bi gol egin zituen Beñat Etxabek, baina partidua berdintzeko hirugarrenik ez zen iritsi zoritxarrez.

FUTBOLA

Mondrak Azkoitian irabazi eta Arizmendik Mutrikun galdu

Kanpoan jokatu dute jardunaldi honetan emakumeen ligako bi ordezkari debagoiendarrek. Mondrak 1 eta 3 irabazi dio Anaitasunari, eta Arizmendik 2 eta 1 galdu du Mutrikun. Sailkapenean bigarren daude arrasatearrak, Eibar liderrarengandik bi puntura. Zazpi garaipen dituzte honekin, eta berdinketa eta porrot bakarra. Arizmendik laugarrena da hamar punturekin.

SASKIBALOIA

Oñatiarrek lidertzara egin dute jauzi, orain artekoa menderatuta

Atzetik hasi arren, defentsan oinarrituta buelta eman zioten gorriek

EMAITZA

SUSTRAI ALOÑA MENDI

75-73

EASO PASTAS ARRUABARRENA

JULEN IRIONDO | OÑATI
Partidu guztiak irabazita iritsi zen Easo Zubikoara, baina liderra bera ere jauzi zen Sustrai Aloña Mendiren kantxan. Eta hori oñatiarrek ez zirela partiduan ondo sartu. Aurreneko laurdenean alde handia hartu zuten kanpokoek -4 eta 17 egon ziren-, eta horretan zeresan handia izan zuen, besteak beste, gorriek huts egindako jaurtiketa libreek -bost zehazki; bigarrenean beste sei-.

Dena dela, bigarren laurdenarako gai izan ziren oñatiarrek Easoren alde jateko, eta handik aurrera pare-parean egon zen partidua, alde txikiekin. Markagailua parekatu eta gerora ere horrela mantentzeko garrantzitsuak izan ziren, adibidez, atsedenaldiaren aurretik eta ostean, minutu gutxiko tartean, Mikel Biainek egindako bost hirukoak. Baita, saiakera desberdinen ostean, etxekoek donostiarrak geratzeko defentsa proposarekin asmatu izanak ere: "1-3-1 defentsarekin, euren bar-



Mallabiabarrena, bi aurkariren aurrean saskiratzea egiten. | JULEN IRIONDO

neraldi guztietan gure pibot nagusia erdian topatzen zuten", zioen Xabier Igartua entrenatzaileak.

Atsedenaldira 31 eta 32 iritsi zen partidua, eta azken laurdinari ekiteko ere ez zegoen alde handirik markagailuan. Minutu erabakigarrietan, ordea, ondo

jokatzen jakin izan zuten etxekoek eta, besteren artean, partidua hasierako akatsak zuzendu eta jaurtiketa libreetan asmatuz Zubikoan geratu zen garaipena. Partidua irabazteko azken jabetza bat izan zuen Easok, baina donostiarrak ez zuten jaurtiketan asmatu.



JOSETXO ARANTZABAL

ERRUGBIA

12 eta 32 galdu Kanpanzarrek Elorriorekin

Ez zuen zereginik izan Kanpanzar ARTk zapatu arratsaldean Mojategin Elorrioren kontra jokaturako partiduan. Partidurik galdu gabe -bakarra berdinduta- iritsi ziren bizkaitarrak Arrasatera, eta horrela egin zuten alde. Jokoa arlo gehienetan nagusitu zitzaizkien etxekoei, agerian geratu zen talde indartsua dutela. Arrasatearrak bi entsegu egin zituzten, baina bestela ezagun utzi zuten ganoraz entrenatu ezinda dabiltzala. Jokalariek erakutsitako jarrera, behintzat, ona izan zen.

ESKUBALOIA

Sei goleko abantaila hartu ondoren behera etorri eta galdu egin zuten etxekoek

Azkeneko minutuetan lwhia berdintzeko aukera izan zuen Arrasatek

EMAITZA

FORD MUGARRI ARRASATE

29-30

HONDARRIBIA

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Arrasateko taldeak ezin izan zuen sei goleko abantailari eutsi. Partidua menderatuta zutela ematen zuenean, etxeko jokalariai behera etorri ziren; hala, azkeneko minutura arte borrokan egon arren, ez ziren gauza izan gola egin eta partidua berdintzeko.

Edu Orgazek harmailatik ikusi behar izan zuen zapatuko lehia. Aranburuzabala, Zubiaurre, Santos, Kruzeta, Aldanondo, Isasmendi eta Herrerok hasi zuten lehia. Hasierako minutuetan partiduari neurria hartzea kosta zitzaien arrasatearrei; ondorioz, lehenengo minutuetan 1-4 atzetik joan ziren. Poliki-poliki, baina, defentsan hobetu eta partiduaren jabetza hartu zuten. Aldageletara 16-14 aurretik iritsi ziren etxekoak.

Tentsio handiko uneak
Bigarren zatia ondo hasi zuten Orgazen mutilek. 10. minuturako sei goleko aldea hartu zuten (23-17). Baina, defentsan egindako hutsegiteen ondorioz, Hondarribiak tartea murriztu zuen. Azkeneko zazpi minutuetan 26-26 berdindu zuen lehia Hondarribiak.
Hala, tentsio handiko uneak bizi izan ziren Musakolako kantxan. Azkeneko minutuetan Callejak penalti bat huts egin zuen; eta Hondarribiarren atezainak hainbat gol aukera garbi geratu zituen. Hala, gol bakarreko aldearekin irabazi zuen Hondarribiak arrasatearren kantxan.



Nestor Calleja jaurtiketa egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



ARETO FUTBOLA

JOSETXO ARANTZABAL

Eskoriatzak 0-2 galdu du etxean

Euskal ligako Eskoriatzak ezin izan zuen mendean hartu Inter Eder taldea atzo etxean. Atsedenerako 27 segundo falta zirela egin zuten lehenengo gola donostiarrek. Eskoriatzak gogor estutu zuen bigarren zatian, baina bigarren gola jaso ondoren ezin izan zuten ezer egin.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Trintxerpe-Roteta	3-2
Hondarribia-Zumaiako	1-4
Aloña Mendi-Oiartzun	1-4
Mondragon-Bergara	1-2
Real Union-Tolosa	2-2
Anaitasuna-Aretxabaleta	3-2
Aurrera-Idiazabal	1-0
Ordizia-Pasaia	1-3
Hernani-Berio	2-0

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Pasaia	28	12
2 Hernani	28	12
3 Anaitasuna	25	12
4 Oiartzun	21	12
5 Aurrera	20	12
6 Real Union	19	12
7 Mondra	18	12
8 Aretxabaleta	17	12
9 Trintxerpe	16	12
10 Bergara	15	12
11 Hondarribia	15	12
12 Idiazabal	13	12
13 Tolosa	13	12
14 Berio	13	12
15 Ordizia	12	12
16 Aloña Mendi	11	12
17 Zumaiako	8	12
18 Roteria	7	12

HURRENGO JARDUNALDIA

Berio-Roteta
Zumaiako Trintxerpe
Oiartzun Hondarribia
Bergara-Aloña Mendi
Tolosa-Mondra
Aretxabaleta-Real Union
Idiazabal-Anaitasuna
Pasaia-Aurrera
Hernani-Ordizia

ERREGIONAL PREFERENTEA

Aretxabaleta B-Amaiak Bat	0-0
Mutriku-Mondra B	7-1
Antzuola-Zestoa	2-2

1. ERREGIONALA

Aretxabaleta C-Eibartarrak	4-0
Bergara B-Soraluze	0-3

OHOREZKO GAZTEAK

Amaiak Bat - Aloña Mendi	1-4
Añorga-Mondra	3-2

LEHEN MAILAKO GAZTEAK

Arizmendi UDA - Eibartarrak	0-1
Urki - Aretxabaleta B	2-0
Bergara B - Arizmendi	1-9

OHOREZKO KADETEAK

Bergara-Aretxabaleta Arizmendi	1-3
--------------------------------	-----

KADETEEN LEHENENGO MAILA

Aretxabaleta B- Bergara B	4-1
Aloña Mendi B - Aloña Mendi	1-2
Arrasate - Ilintxa	4-1
Arizmendi UDA	atsedena

EMAKUMEZKOAK

Mutriku-Arizmendi	2-1
Anaitasuna - Mondra	1-3

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarri A. - Hondarribia	29-30
-------------------------------	-------

PREFERENTEA, EMAKUMEA

Basusta - Aloña Mendi	18-15
-----------------------	-------

LEHEN TERRITORIALA

Eibarko Haritza - Arrasate	29-18
----------------------------	-------

BIGARREN TERRITORIALA

Urola - Izarraitz Aloña Mendi	24-38
-------------------------------	-------

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Ordizia-Aloña Mendi	22-32
---------------------	-------

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi-Egia	20-21
------------------	-------

KADETEAK, GIZONEZKOAK

Egia-Soraluze	48-18
Amenabar-Berezao Aloña Mendi	30-28

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

Ordizia-Aloña Mendi	17-17
Aiala-Aloña Mendi B	23-18

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA NAZIONALA

Sustrai Aloña Mendi-Easo	75-73
Mu-Urdaneta	86-79

SENIOR GIZONEZKOAK

MU-Easo Berri	44-65
---------------	-------

SENIOR GIZONEZ., 2. MAILA

Errotaundi-Sustrai Aloña	50-63
--------------------------	-------

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Bilintx- Eskoriatza	35-57
---------------------	-------

GAZTE GIZONEZKOAK, PARTA.

MU-BKL	43-78
Aloña Mendi-Take Tolosa	00-00
Soraluze	atsedena

GAZTE EMAKUMEZKOAK, PART

Andraitz-Aloña Mendi	00-00
----------------------	-------

KADETE GIZONEZ. ERRENDI.

MU-Easo 96	00-00
------------	-------

KADETE GIZONEZ. PARTAID.

Colchones-Aloña Mendi	61-56
MU-Soraluze	38-96

KADETE EMAKUMEZ. ERREND.

Eskoriatza-Añorga	42-33
-------------------	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Inter Eder	00-00
-----------------------	-------

GIPUZKOAKO BIGARREN M.

Aretxabaleta-Gamon Naturista	9-4
------------------------------	-----

GIPUZKOAKO HIRUGARREN M.

Pub Elorri-Aloña Mendi	1-3
------------------------	-----

ERRUGBIA

SENIOR EUSKADIKO TXAPEL.

Kanpanzar ART-Elorrio	12-32
-----------------------	-------

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA
HARMAILATIK
ASTELEHENERO,
21:25EAN

goiena

SNOWBOARD-A ETA ZIKLISMOA

Andoni Epelde, 'Antxon' | Kirol argazkilaria

"Snowboardeko argazkiak ateratzeko, elur ona badago, edozein leku izan daiteke aproposa"

- Arrasatekoak 'Snowboard' eta 'Pedalier' kirol aldizkariendako egiten du lan
- Txirrindularitza denboraldia amaituta, laster izango da elurretan lanean

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Gurasoengandik datorcio Andoni Epelderi, lagunendako *Antxon* (Arrasate, 1970), argazkilaritza-rekiko zaletasuna. SR taldearendako egiten du lan, *Snowboard* aldizkariko argazki editorea da, eta *Pedalier* aldizkariko argazkilaria. Ziklismo denboraldia amaituta –Mallorcan erreportajeren bat du esku artean– laster elurretan ibiliko da Arrasatekoa, snow denboraldiak emango dituen argazki on horien bila.

Snowboard egitetik, taula alde batera utzi eta argazkiak ateratzera; zaletasuna ogibide.

Bai, eta egia esan, kasualitatez izan zen. Snow egiten genbiltzan egun batean argazki kamera hartu nuen, eta orduan ateratako argazki batzuk aldizkari batera bidali eta argitaratu egin zizkidaten. Halaxe hasi zen dena.

Denak elurretan gozatzen dabiltzanean, norbera lanean.

Dagoeneko ohituta nagoen arren, gazteago nintzenean amorratuta ibiltzen nintzen. Taula gainean ibiltzeko egiten duen egunarekin, eta ni argazkiak ateratzen! [Barre] Argazkiak ateratzeko eguraldi txarra egiten duenean aprobeztatzen dut elurretan apur bat ibiltzeko.

Ezin da argazkiendako egun apropos bat snowa egiten galdu.


Ez, eta Pirinioetan gutxiago, batez ere elurra gutxitan egoten delako kalitate oso onaz. Beste leku batzuetan askotan izaten dira kondizio onak, baina ez Pirinioetan, eta horiek aprobetxatu egin behar dira.

Eta elurretatik errepidera, bizikletan dabiltzanezi argazkiak ateratzera.

Bai, orain dela bost urte sortu zen *Pedalier* aldizkaria, eta bigarren zenbakian-edo hasi nintzen Pedalierrerako argazkiak ateratzen. Erabat ezberdina da, gusurago ibiltzen naiz elurretan, baina baditu bere gauza onak.

Argazkilaririkuspuntutik ere, ezberdina izango da lana.

Bai, elurretan askoz ere zailagoa da lan egitea. *Pedalieren* ziklisten lehen planoak atera beharrean normalean parajeak ateratzen ditugu, horren bila ibiltzen gara. Txirrindularitzako aldizkari espezializatuetan, Contadorren sufri-mendu aurpegi bat ateratzeko balio du lehen planoak, baina zikloturistei zuzendutako aldizkari batean, argazkian atera behar duan ziklista hori ez bada ezaguna, nahiago izaten dugu paraje eder horiei argazkia ateratzeari.



'Antxon' Epelde argazkilaria. | A.EPELDE

Teknikoki elurretan lan egitea zailagoa izango da.

Bai, elurretan argazki on bat ateratzeko gehiago betetzen nau. Elurraren zuritasuna, erliebeak ondo bereiztea, saltoa egiten dabilen horri momentu egokian harrapatzea... Elurretan argia neurtzea zailagoa da, eta bestalde, gertatu izan zaigu egun oso bat arrapala bat egiten pasa, gauean euria egin eta lan guztia pikutara joatea. Argazkirik atera gabe, etxera buelta.

Eta ziklismoko argazkiak?

Horrek lan gutxiago du, egia esan, edonork atera ditzakeen argazkiak dira horiek. Mendate batean kurba ondo ikusten diren leku bat aukeratu eta ziklisten zain egon izan naiz behin baino gehiagotan. Urbasara hiruzpalau aldiz jarraian joan eta gero lortu nuen argazki polit batzuk egitea.

Tarteka gozamina da horrelako argazki bat ateratzeko asmatan ibiltzea, lasaitasun osoz ibiltzen zarelako lanean. Irati Extrem eta horrelako probetan, berriz, estresanteagoa izaten da lana.

Elurretara itzulita, zelan dago snowboard mundua?

Behera etorrita dagoela esango nuke. Egia da orain dela urte batzuk sekulako gorakada izan zuela, eta hor goian jarraitzea ez zela batere erraza. Guk gaztetan neguko denboraldi osorako etxea alokatzen genuen Pirinioetan, eta gaur egun gazte gutxiagok egiten du hori. Ohitura aldaketa izan daiteke, eta noski, krisi garai honek ere eragin zuzena izango

"Snowboardak sekulako gorakada izan zuen; behera etorrita dago orain"

"Ziklismoko argazkiak egiteko, leku bakoitzak du bere xarma"

du. Marka handiek indartsu jarraitzen dute, baina txikiak errazago desagertzen dira. Guk, publizitatean ere igartzen dugu ez dela garairik onena.

Alderantziz, krisi garai honetan ere, zikloturismoa goraka doa.

Bai, baina hor bi kirol horiek praktikatzen dituztenen batzbesteko adinak ere badu zeresana. Snowboard-ean jende gaztea dabil, eta guk 22 urterekin soldata bat geneukan moduan, oraingo gazteek ez dute halakorik. Zikloturismoa, bestalde, jende nagusiagoak praktikatzen du, 30 urtetik gora-edo.

Pedalier aldizkarian eskertzen da bizikleta modelo berriak aurkezte- ra, edota profesionalen berri ematera mugatzen diren aldizkarietatik aldentzea.

Surfer Rule edota *Snowboard* aldizkarietan egiten duguna bizikletara eraman dugula esango nuke, eta jendeak ondo hartu du. Mendateen deskribapenak, parajeen erretratuak, iritzi artikulak... Nik uste dut hor dugula indarra. Estatu mailan badira

urte mordoak dituzten ziklismo aldizkariak, baina gu ari gara gure lekua egiten.

Surfeko argazkiekin ez zara animatzen?

Inoiz ibili izan naiz, baina horretarako mundutxo horretan sartuta egon behar duzu, eta argazkilaritza materiala ere bestelakoa da. Ni snowboard munduan sartuta nabil, bertako jendea ezagutzen dut, eta azken batean, hori behar da. Gainera, bestela ere nahikoa lan dut, hortan...

Snow-ean edo bizikletan argazkiak ateratzeko ze paraje aukeratuko zenuke?

Erantzuna ez da erraza. Txirrindularitzako argazkiak ateratzeko, Stelvio (Italia) mendatea ikusgarria da. Bertako argazki bat geneukan erredakzioan, eta desaeztzen nengoen hara joateko. Baina, esaterako, Nafarroan edota Palentzian paraje ederrak daude. Alde horretatik, leku bakoitzak bere berezitasuna du. Snow-ko argazkiak ateratzeko, berriz, kalitate oneko elurra dagoen edozein toki da aproposa.

"Ikusmen arazoak garaiz diagnostikatzea garrantzitsua da"

Jabier Agirre pediatrik kontuan hartzeko hainbat argibide eman dizkigu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Normalean lau eskola-umetatik batek ikusmen-arazoak izaten ditu, baina, zoritxarrez, sintoma asko oharkabea pasatzen dira

denbora luzean", diosku Agirrek. Garrantzitsua da gurasook arduraz jokatzeari; izan ere, "ondo ikus-tea ezinbestekoa da haurraren hazkundera eta garapena behar

bezalakoak izan daitezen, eta zer esanik ez eskolan nahiz bizitzan aurrera egin ahal izateko". Anblopadiak edo begi alferra, miopia, hipermetropia, astigmatismoa, estrabismoa edo begi okerra izaten dira umeen artean ikusmen arazo nagusiak. "Garaiz diagnostikatu ezean, ikusmenaren gailera atzeratzen da eragin dezakete alterazioak", horregatik garrantzitsua da ortalmologoarengana joatea.

0-3 urtera bitarteko haurretan ikusmenaren neurketa zeharkako moduan egiten da. 3 urtetik aurrera, aldiz, posible da umeen ikusmen-zorroztasuna neurtu. Kontsultan, gurasoek eskainiko dituzten argibideak oso baliagarriak izango dira. Garrantzitsua izaten da, halaber, familiar aurrekari oftalmologikorik ote dagoen jakitea.



Neskatoa betaurrekoekin. | MANEL

Prestazio berria gaixotasun larriak dituzten haurren guraso langileendako

Guraso biek lan egiten duten kasuetarako pentsatuta dago eta bietako bati egokituko zaio

L.Z. | ARRASATE

Estatuko Aurrekontu Orokorretan aldaketa-proposamen bat onartuko du Espainiako Kongresuak, minbizia edo gaixotasun larriak dituzten haurren guraso langileei prestazio bat emateko ospitalean edo tratamenduan dauden bitartean.

Lan eta Immigrazio Ministerioak azaldu duenez, laneko baja bat hartuko balute bezala izango litzateke, eta laneko ordu murrizketaren arabera izango da; ildo horretan, gutxienez lan-orduaren %50ekoa izan beharko du. Gizarte Segurantzaren lane-ko baja bat bezala izango da, eta haurrak 18 urte betetzen ditueneko edo zainketa medikoak bukatzen direnean bukatu egingo da. Prestazio berri hori urtarilaren letik aurrera sartuko da indarrean.



Gurasoa atsekabetuta. | ALL-I-OLI

OHARRAK

DANTZA ESKOLAK

Haur eta gurasoendako dantza saio irekiak antolatu ditu Arrasaten Txatxilipurdi elkarteak eta Aretxabaletan Jaiki elkarteak. Aste bukaera honetan, zapatuan, egin zituzten lehenengo saioak; Arrasaten beste hiru saio egingo dituzte. Zapatuetan izango dira, 11:00etatik 12:30era. Interesatuak Txatxilipurdira jo behar dute.

JOSTAILUAK BATZEN

Txatxilipurdi hasi da abenduaren 19an Okendoko ludotekan egingo duen Jostailu Truke Merkaturako materiala batzen. Aste honetan beste hiru egunez batuko dituzte, 17:30etik 19:00etara. Eguaztenean, hilak 30, Okendoko ludotekan, eguaztenean Santa Marinako parkean eta eguenean Ariamazubi plazan.

LANA ETA FAMILIA

Lana eta familia bateragarri eginenez enpresaren lehiakortasuna hobetzeko neurriak aztertuko dituzte abenduaren 1ean Donostian. Enpresaburuei zuzendutako jardunaldia da eta bertan, Fidenet, Lotura eta Askora esperientziak emango dituzte ezagutzera. Informazio gehiago euskadinno-va.net-en aurkituko duzue.



Montse Ereño, Mondragon Unibertsitateko irakaslea. | ULMA

Montse Ereño | MU-ko irakaslea

"Interneten gero eta adin txikiagoarekin hasten dira, eta hor dago arriskua"

Gurasoek arduratu beharrean, arduraz jokatu behar dutela uste du Montse Ereño adituak

L.Z. | ARRASATE

Internet izan zuten hizpide eguenean Ulmak 12-16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoendako antolatutako hitzaldian. Montse Ereñok hainbat azalpen eman zituen.

Zergatik du Internetek horrelako arrakasta gazteen artean?

Internet aski handia da. Munduko edozein lekutan dauden lagunekin zein senitatekoekin kontaktuan egon gaitzake eta aisialdirako aukera handiak eskaintzen ditu.

Ze erabilpen egiten dute gazteek?

Sare sozialak erabiltzen dituzte gehienbat, eta informazio iturri moduan. Argazkiak, ikus-entzunezkoak, musika trukatzeko dute... Elkarrizketa multimedia da egiten dutena, eta horretarako, messengerra, txatak eta Tuenti zein Facebook erabiltzen dituzte.

Ezagutzarik eza da gurasoen mesfidantzaren arrazoi nagusia, ezta?

Horrela da. Guraso asko liluren eta ikararen artean daude. Ikusten dute seme-alabek ze erraztasunekin erabiltzen duten Internet eta pentsatzen dute ez dutela medio hori sekula menperatuko. Guraso horiek jakin behar dute ez dela ezagutza tekniko handirik behar Interneten erabiltzaile izateko. Jarra positiboa eta ikasteko pres-tutasuna beharrezkoak dira.

Zeintzuk dira Interneten arrisku errealak?

Edukiak, kontaktuak eta merkataritza dira arrisku horiek. Gazteendako egokiak ez diren edukiak daude Interneten eta kaltegarria izan daiteke arriskutsuak diren harremanak egitea (pederastak, jazarpena egiten dutenak...). Bestalde ohartarazi behar ditugu iruzurrez eta apustu jokoez.

Kalean, bizitza errealean, ezezagunekin kontuz ibiltzeko esaten diegun moduan, Interneten ere berdina jokatu behar dutela esan behar diegu eta ohartarazi behar ditugu Interneten argitaratzen dugun informazioa, argazkiak edo edukiak ezin direla gero ezabatu. Beraz, kontuz horrekin. Kalean ezezagun bati kontatuko ez zeniokeen ez igo Internetera.

Gurasook ahalegina egin behar dugu Internet ezagutzen?

Bai. Datuek erakusten dute adin batetik aurrera arduraz jokatzeko dutela, baina kontua da neska-mutikoak gero eta adin txikiagoarekin hasten direla Internet erabiltzen. Kasu horietan, gurasoek arduraz jokatzeari ezinbestekoa da. Bai, ahalegina egin behar dugu medioa ezagutzeko eta Internet ezagutzeko erabili egin behar da. Ez dago beste biderik. Internet, gainera, komunikazio eta formazio erreminta oso baliagarria da.



KULTURA

DANBAKA MUSIKA LEHIAKETA

Musika ulertzeko lau modu, gustu guztien zalearendako

- Ezohikotasuna Deabrutuk, sorpresa Xarmak, teknika Seafoidek eta indarra Scamek
- Hotz hasi zen gaua berotu zen azkenean; final handiaren aurretik, saio bakarra falta da

JOKIN BEREZIARTUA | ELGETA

Aurrera doa Danbaka, urtarrilaren 14ko final handiaren aurretik saio bat besterik ez da falta. Lau garren saioa izan genuen egubakoitzean eta saio guztiak ikusi zituenak denetariko doinuak entzuteko aukera izan zuten: death-metal erritmoetan oinarritutako muturreko bateria saiotik hasi, euskarazko rock gogorrarekin eta Irlandako jatorri izendapezko folkarekin jarraitu eta punk-rocka oinarri hartutako metal doinuekin amaitu. Nor baino nor ezberdinago, beraz.

Deabrutu: bateria foku bakarra
Elgetan hotz handia eta sekulako behe-lainoa egiten zuen Danbakaren laugarrena hasi zenerako. Eta Espaloian ere hotz hasi zen gaua. Erritmo bizi eta gogorrekin, baina hotz. Izan ere, Iñaki Urizar aramaioarraren Deabrutu proiektuak ez zuen ikuslearengan *feedback* handirik sortu.

Agertokian Urizar eta haren bateria bakarrik, eta death eta metal estiloak oinarri zituen erritmoak proposamen modura. Ezohikoa bezain ausarta, baina ikuslearendako baino gehiago, musikariarendako berarendako saioa izan zen. Gustura egon zela esan zigun emanaldia amaitu ostean. Bejondeiola bakarrik irten eta ordu erdiz bateriari era inprobisatuan astintzeko ausardia erakusteagatik.

Xarma, xarma bereziak

Xarmak azkar asko berotu zuen giroa. Gogotsu ekin zioten zuzenekoari, dena ematera etorri ziren Ondarroa, Berriz eta Donostiatik. Hori bai, zortea ez zuten aldeko izan. Itsaso Gutierrez gitarra jole erritmikoak hiru aldiz aldatu behar izan zuen gitarra eta bateria joleak kaxa apurtu zuen. Hori guztia ordu erdian: zorte txarra behar da gero! Gutierrezek naturaltasun osoz bota zuen mikrofonotik: "Gaur ez da nire eguna, hori argi dago".

Baina arazoetan itotzetik urruti, Gutierrezek berak ez zuen inongo erreparorik izan agerto-

kitik jaitsi eta une batez ikusleengandik gertuago jotzeko. Arazoak arazo eta oztopoak oztopo, saio bikaina egin zuten, intentsitate handikoa. Izenak bat egin zuen izaerarekin: xarma berezia dutela erakutsi zuten.

Seafoid: goi mailako folka

Irlandako folkaren txanda izan zen ondoren. Johnny abeslariak –Irlandan jaioa– gidatu zuen saioa, hori bai, goi mailako musikarien laguntzaz: teklatu, gitarra, baxu, akordeoi eta bandolinekin –aipatzekoa haren zorrotasunak– saio osatua bete zuten. Garagardoz bustitako kantuak, noski, ez ziren falta izan: tarteka The Pogues edo The Dubliners taldeak ekarri zizkiguten gogora. Gutxi, baina ikuslea mugiarazi zuten.

Scam: itxiera indartsua

Ikusleen artean ikusmin handiena piztu zutenak izan ziren aretxabaletarrak. Indartsu borobildu zuten gaua, taldearen garapenaren lekuko izan zen Espaloia; aurreko bi edizioetan baino doinu eta erritmo gogorragoekin etorri ziren. Hori bai, abestien artean denbora larregi galdu zuten.

Arazo teknikoen gaua izan zen

Bi taldek zuzenekoaren gaitzak sufritu zituzten Danbakaren laugarren saioan: arazo teknikoak. Kaltetuena, zalantza barik, Xarma taldea izan zen. Gitarra hiru aldiz aldatu beharra –Itsaso Gutierrez agertokian bertan ikusi genuen gitarrari sokak aldatzen–, baita bateriaren kaxa ere: ondo astindua zion bateria joleak, erabat deseginda gertatu zen-eta. Eragozpenen aurrean oso ondo erantzun zuten, hala ere.

Seafoid taldeak ere arazoak izan zituen saioaren amaieran; baina Pau Dierez kideak ondo esandako moduan, arazo teknikoan aurrean ezer gutxi egin daiteke.



Scam taldeko Mikel Cubillo gitarra jole eta *frontman*-a, bozgorailua lurrera botatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

Deabrutu | Aramaio

ADITUAK ESANA | IBAN MORALES

"Ez dakit ohiko ikusleek zer esango duten, baina ni bateria jolea naiz eta estiloa ere asko gerturatu da nire gustuetara. Beraz, gustura egon naiz. Teknikoki ondo aritu dela esango nuke, baina batez ere ausart, oso ausart".

ENTZULEAK ESANA | MAITE ZUBIATE

"Agertokira bateria-jotzaile bat bakarrik igoko zela jakin nuenean, hobeia izango zela pentsatu nuen, figura bat-edo, baina ez nau zur eta lur utzi. Nire ustetan bera da emanaldia gehien gozatu duena. Dena dela, onartu beharra dut ordu erdia ez zaidala luzea egin".

KAZETARIAK ESANA | JOKIN BEREZIARTUA

"Iñaki Urizarrek aurkeztu du Danbakan bere proiektu pertsonala. Teknikoki ez da gaizki aritu, baina ez du ikuslea aho bete hortz uzteko mailarik erakutsi. Proposamen ausarta izan dela ezin ukatu".

TALDEKIDEAK ESANA | IÑAKI URIZAR

"Oso ondo joan da dena. Hasieran urdu-ri nengoen, baina emanaldiak aurrera egin ahala lasaitzen joan naiz. Pozik geratu naiz irten denarekin. Inprobisazioa izan da guztia, entseguetako oinarriarekin, noski. Horregatik beldurra nuen ea blokeatuta geratuko nintzen, baina ez da halakorik gertatu; eskerrak!".



JOSETXO ARANTZABAL

Seafoid | Eibar

ADITUAK ESANA | IBAN MORALES

"Musikari onak dira, horretan ez dago zalantzarik. Folka gustuko dutenendako saio ona izan da, entretenigarria eta gozatzeko modukoa. Folka, baina, ez zait larregi gustatzen; niri doinu gogorragoak gustatzen zaizkit".

ENTZULEAK ESANA | MAITE ZUBIATE

"Gustatu zait. Abeslari irlandarrak egiazkoak egiten ditu eta aspaldi ez nuela halako folk talde txukun eta sinesgarria entzuten. Gainera, instrumentuak menderatzen dituzte. Hala ere, eskatzekotan bizitasun gehiago bota dut faltan, hori bakarrik falta izan zaie".

KAZETARIAK ESANA | JOKIN BEREZIARTUA

"Teknikoki emanaldi borobila eskaini dute eibartarrek. Jaiotzez irlandarra den abeslariaren ahotsa ezin hobeto ezkondu dute denetariko instrumentuekin. Jarra aldetik ondo baina bizitasun puntua falta izan zaie, akaso".

TALDEKIDEAK ESANA | PAU DIEREZ

"Gustura aritu gara eta espero baino jende gehiago ikusi dugu. Musika aldetik emanaldi borobila irten zaigu, azken abestiko arazo tekniko horiek ezik. Horren aurka ezin dugu ezer egin. Ikuslea gutxi mugitu dela esango nuke, baina gu oso gustura goaz egindakoarekin".



JOSETXO ARANTZABAL

Xarma | Ondarroa, Berriz eta Donostia

ADITUAK ESANA | IBAN MORALES

"Saio bikaina eskaini dute. Erritmo biziak, eta arazo teknikoak arazo, aurrera egiteko gai direla erakutsi dute: oso ondo horregatik. Gainera, nire lehen taldearen garaiak gogoratu dizkidate; euren saioa nabarmenduko nuke nik gau osotik".

ENTZULEAK ESANA | MAITE ZUBIATE

"Sorpresa handia hartu dut. Ez nituen ezagutzen eta harrapatu egin naute. Berehala ikusleak emanaldian sartu gaituzte. Maisutasuna erakutsi eta intentsitate handiko emanaldia egin dute. Gainera, arazo teknikoak izan dituzten arren, oztupo guztiei aurre egin diete".

KAZETARIAK ESANA | JOKIN BEREZIARTUA

"Izaera bat dator izenarekin. Xarma taldeak xarma berezia duela erakutsi du. Hasieratik gogotsu, ikuslearengana heldu dira eta teknika zein jarrera aldetik ezin zaie askoz gehiago eskatu. Zortea ez dute aldeko izan: hamaika arazo tekniko izan dituzte, baina aurre egiten jakin dute".

TALDEKIDEAK ESANA | ITSASO GUTIERREZ

"Zapore gazi-gozoa gelditu zaigu izan dugun arazo teknikoengatik. Hala ere, oztupo horiei nahiko ondo egin diegu aurre eta, oro har, gustura gaude egindako lanarekin. Motza egin zaigu, baina askatu dugu askatu beharrekoa".



JOSETXO ARANTZABAL

Scam | Aretxabaleta

ADITUAK ESANA | IBAN MORALES

"Aldaketa galanta nabaritu dut euren musikan. Punk-rocka egiten zuten hasieran eta orain metal doinuetara egin dute salto, nondik datozen ahaztu barik. Oso ondo aritu dira, gustura egon naiz".

ENTZULEAK ESANA | MAITE ZUBIATE

"Onartu beharra dut Danbakako hirugarren edizioan, oraingoan baino inpresio handiagoa egin zidatela. Oso ondo ikasita dute egin beharrekoa eta talde trinkoa da, potentea. Melodia eta indarra ondo uztartzen dituzte. Agian, duten gaztetasuna agertoki gainean gehiago erakustea eskatuko nieke, freskotasuna".

KAZETARIAK ESANA | JOKIN BEREZIARTUA

"Hirugarrenez etorri dira eta igarri da. Agertokian bizi-bizi eta konfiantzaz aritu dira. Doinu gogorragoak eskaini dituzte; taldea musikalki heldutu da. Akats garrantzitsu bat, hala ere: abestien arteko atsedanaldiak luzeegiak izan dira".

TALDEKIDEAK ESANA | MIKEL CUBILLO

"Oso pozik gaude. Hobetu beti hobetu daiteke, baina ondo pasatu dugu eta hori da garrantzitsua. Ikusleen berotasuna eskertu gura dugu, ikusle barik ez da-eta erraza dena ematea. Antolatzaileei ere eskerrak, hirugarrenez gudan sinistu duzuelako".



Johnny (Seafoid).



Xarma taldearen saioa: Itsaso Gutierrez agertokitik jaitsi zen une batez.



Iñaki Urizar eta haren bateria, hamaika platerekin.




Mikel Cubillo (Scam).



Scam taldearen saioan ikusleak lehen iladetan.



Xarmako kideak, dena ematen.



Xarmako baxu jolea.



Pau Pandolinarekin.



Seafoid-en zuzenekoaren une bat.



Urizar plater artean.

JOSETXO ARANTZABAL

IXILPEKOAK

INTENTSITATEA, INDARRA ETA GOXOTASUNA



MAIDER ARREGI

Sekulako energiaz ekin zion gauari **Deabrutuko** Iñakik. Inoiz ikusi gabe neukan 30 minutuko bateria saio bat. Belarriak ere **dardar** utzi zizkigun zuzeneko inprobisazioekin! Ea zortea daukan eta bila dabilen talde hori osatzerik duen.

Xarmako mutilak eskarmentudunak dira. kideak **Kelke** eta **Zain** moduko talde ezagunetan aritu dira. Esperientzia hori igarri egiten da eta lehiaketako talderik txukunenetako bat dela iruditu zitzaidan. Arazo tekniko dezente izan zituzten: bateriak kaxa hautsi zuen eta **Itsasok** hiru bider aldatu zuen gitarraz. Esan beharra daukat gitarra nola jotzen duen ikustea gozada bat dela! Bergarako **LABeko ordezkariak** ere ikusi genituen taldea animatzen.

Seafoid taldearekin folkaren indarra eta goxotasuna etorri zen. Bikaina benetan **Thin Lizzyren** *Whiskey In The Jar* abestiaren bertsioa.

Joxebi ere etorri zen semea animatzera. Bidean, baina, basurdea batekin talka egin zuen. Zorionez anekdota batean geratu zen guztia. Pena, basurdeak ihes egin izanak. Bestela lapikora!

Scam-eko mutilak beste behin sorpresa eman ziguten. Emanaldi aparta eta ikusleak zorutzen. Hirugarrenean bai!!

ABENDUAK 17
22:30

Dark Code | Bergara

Kubers | Arrasate

Asfiksia | Oñati

Industria Dolor | Arrasate

AITOR ZEZIAGA
ARRASATE

"Oso gustura egon naiz ikusi ditudan kontzertuetan. Lehena ez dut ikusi eta gehien harritu nauen taldea Seafoid izan da, oso originalak izan dira. Gu Scam ikustera etorri gara: gaua borobildu dute, indartsu aritu dira".

JON IRAZABAL
ELGETA

"Gau ona izan da, aurtengo edizioan ikusi dudana onena, agian. Lehen taldearen saioan ez naiz egon, baina gainontzekoak gustatu zaizkit. Xarma taldea nabarmenduko nuke: arazoak arazo, saio bikaina egin dute".

EIDER BALANZATEGI
ARAMAIO

"Gaua, oro har, ondo joan da. Ni Scam ikustera etorri naiz, eta gustatu zait eskaini duten emanaldia. Igartzen da Danbakan parte hartzen duten hirugarren aldia dela; nabaria da taldearen musikak izan duen garapena".

EKAITZ LUENGO
ARRASATE

"Taldea batzuk besteak baino hobeto aritu dira, baina, estiloak estilo, ondo joan da gaua orokorrean. Nik Xarmaren saioa nabarmenduko nuke; aspaldiko garaia gogoratu dizkidate, nire lehen musika taldearen garaioak".

OIER ARREGI
ARRASATE

"Seafoid taldeak harritu nau gehien, estiloa asko gustatu zait. Kutsu berezi bat atzeman diet, oso gustura egon naiz euren ordu erdian. Ni, hala ere, Scam ikustera etorri naiz: gaua borobildu dute euren zuzeneko indartsuarekin".

Munduko akordeoilari onenak gurean, 18 urte beteko dituen 'Arrasate Hiria' lehiaketan

Amaia antzokia, Kulturate eta Arizmendi ikastola akordeoiaren topaleku izango dira hilaren 4tik 7ra

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hauspoz akordeoi elkarteak Arrasateko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, akordeoi lehiaketak antolatu ditu aurten ere. Joan den egunean aurkeztu zituzten, Arrasateko Txalaparta elkarte.

Lau arlotan banatzen dira jardunaldiak: batetik, hiru lehiaketa izango dira: Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa, Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa eta Gipuzkoako Akordeoi jaialdia. Eta, bestetik, iazko nazioarteko irabazleak, Semion Shmelkov errusiarrak, kontzertu bana eskainiko du Aretxabaletako Arkupen

–zapatuan, hilak 4, 20:00etan– eta Arrasateko Kulturaten –astelehenean, hilak 6, 20:00etan–. Lehiaketak abenduaren 4tik 7ra izango dira eta guztira 300 akordeoilari inguruk hartuko dute parte.

Nazioarteko sailean zortzi herrialdetatik etorritako 16 partaide izango da: Serbia, Portugal, Eslovenia, Polonia, Austria, Finlandia eta Errusiatik etorriko dira. Kontzertugile izan nahi duen akordeoilari ororendako erreferentziazko lehiaketa da eta, beraz, munduko onenak etorriko dira Arrasatera. *Arrasate Hiria* lehiaketa nazioarteko hiru lehiaketa garrantzitsuenen artean kokatzen da. Kontzertuak Amaia antzokian izango dira. Gaintzeko kontzertuak, berriz, Kulturaten eta Arizmendi ikastolan.

Akordeioa, pedagogikoki

Lehiaketen helburua da akordeoiaren ikasketa bultzatzea. Hala, lehiaketok pedagogia ibilbide osoa betetzen dute, hastapenetatik kontzertugile izaterainoko mailak, hain zuzen.

DATUA

300

AKORDEOILARI INGURU

Arrasaten izango diren hiru lehiaketetan 300 akordeoilari inguruk hartuko dute parte hilaren 4tik 7ra.

Asier Altunaren 'Artalde' lana, Espainiako onena

J.B. | BERGARA

Zinebi dokumental eta film laburren nazioarteko zinemaldiak Asier Altuna *Kixi* zuzendari bergararraren azken lana, *Artalde* izenburu duena, saritu du. *Artalde* film laburreko protagonista Pako Sagarzazu aktorea da. Aktore donostiarrek artaldea galdu duen artzainaren rola betetzen du. Artalderik gabe galduta dago artzaina eta inguruan dituen herritarrek deituko ditu pertsonez osaturiko artaldea osatzeko: artaldea hiritik atera eta zelaira bideratzen saiatuko da. Besteak beste, Bilbon grabatu du *Kixi*-k film laburren.



Asier Altuna *Kixi*. | GOIENA



Txalaparta elkarte gastronomikoan aurkeztu zituzten akordeoi lehiaketak, zuzeneko saio eta guzti. | AMAIA TXINTXURRETA

abenduak

17

EGUBAKOITZA // 22:30

ELGETAKO KAFE ANTZOKIA

SARRERAK ETA ABONUAK //
SALGAU DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO

DARK CODE

BERGARA

KUBERS

SORALUZE

ASFIKSIA

OÑATI

INDUSTRIA DOLOR

ARRASATE

5. KONTZERTUA



www.danbaka.com

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEAK





Mugimendu eta keinu guztietan adi-adi izan zituzten txikienak, dantzan eta kantuan hasteko deseatzan. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

Irriz egiten da irakaspen onena

IKER BARANDIARAN | ESKORIATZA
Jakin-min handia zegoen Eskoriatzan Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko. Batetik, pailazo hauek duten paregabeko ezaugarriengatik; bestetik, Pirritx bera eta haren seme-alaba Pupu eta Lore jendaurrean ikusi ahal izango genituelako; eta azkenik, *Ongi etorri Pupu eta Lore* ikuskizunaren estreinaldia zelako. Hala ere,

izan zuten harrera ikusita, beste edozein egoeratan ere jakin-mina antzekoa izango litzateke.

Hazi eta hezi ere bai
Ohiko duten moduan, barrea, musika eta dantza tonaka ekartzeaz gain, irakaspena ere barra-barra du pailazo koadrilak atzean. Eta zer esanik ez, umeak hazteak eta hezteak duen garrantzia kon-

tuan hartuta. Hori da beste behin erakutsi zigutena. Horretarako, hainbat lagun berri aurkeztu zizkiguten: osasuntsu bizi behar dela erakutsi zigun *Tiritatxo*; natura zaintzeaz, *Largabista* basozainak; zientziaren sekretuetaz asko *Marikalanbre-k*; eta, euskal kultura ondo gordetzeko ohartarazi zigun *Martinber*-ek ere.

Irrien Lagunak Kluba
Horiez gain, Pupu eta Loreren erditzearekin batera, Irrien Lagunak Klub-a ere jaio da, eta horixe ere aurkeztu ziguten. Are gehiago, klub horren maskota eta zaindaria *Lagun* txakurra ere igo zen Eskoriatzako pilotalekuko agertokira.

Oso jende gutxik lortzen du umeak ordu eta erdian adi-adi izatea, baina koadrila honek badaki, eta horren ordainean, bukaera aldera, ikusleei baloi erraldoiak jaurti eta dantzan jarri zuten pilotaleku guztia. Umeak zoratzearren eta gurasoak ere bai, baina txikien bila zebil-

FITXA	
IKUSKIZUNA	
PIRRITX, PORROTXETA MARIMOTOTS	
Izena	
Ongi etorri Pupu eta Lore.	
Non: Eskoriatzako frontoian.	
Eguna: Zapatua, azaroaren 27a.	
Iraupena: Ordu eta erdi..	

tzalako. Bukaera mundiala! Eta, hori gutxi balitz, emanaldiaren ostean bukaezineko muxu bana-keta. Ezin gehiago eskatu, eta hori txikienek ondo dakite.



MARI PAZ VAZQUEZ, UNAI URRUTIA ETA ANDER ZULOAGA
ESKORIATZA

"Hirugarren aldia da Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusten ditugula, eta aurten ere ikaragarri ondo pasatu dugu", kontatu ziguten Unaik eta Anderrek. Ikuskizunetik zer nabarmenduko luketen esatea zaila da euren dako: "Guztia gustatzen zaigu, oso onak dira eta oso ondo pasatzen dugu beti". Gaur, baina, ez dira muxuak hartzera joan. "Jende asko dago eta pozik gaude ikusi ditugulako", diozkue.



IZAR ETA PATXI ASPIAZU
ARRASATE

Izar oraindik aho zabalik harrapatu genuen ikuskizunetik irten ostean. "Oso-oso polita izan da, eta abesten egon naiz", azaldu digu. Bigarren aldia da pailazoak ikusten dituen eta errepikatuko du ziur.



LIYANIS ETA LIBE ALONSO ETA YASUNAY ARANGO
ARRASATE

Liyanisek eta Libek asko maite dituzte Pirritx, Porrotx eta Marimotots. "Arrasaten, Monterron parkean ikusi genituen eta errepikatzea nahi genuen". Errepikatu eta berriro liluratu, gainera: "Pupu eta Lore asko gustatu zaizkigu, baita Lagun txakurra ere; gaurkoa orain arteko politena izan da". Abatea ikaragarri gustatzen zaie Liyanis eta Liberi: "Abesten eta dantzan ikaragarri ondo ibili gara".

Toribio Jauregiren bilduma erakusteko beste pauso bat

Txirrindularitzarekin lotutako argazki erakusketa inauguratu zuten egubakoitzean Aroztegin

I.B. | BERGARA
Toribio Jauregi Antzuolan jaio zen, baina Bergaran bizi eta lan egin zuen eta milaka argazki egin zituen. Haren seme-alaba Bixente eta Karmenen esanetan, 22.000

argazki izan daitezke. Bilduma hori familiak Bergarako Udal Artxiiboari eman zion eta poliki-poliki ezagutzera ematen dabil-tza. Oraingoan txirrindularitza-rekin lotutako lanak eman dituz-

te argitara; eta egubakoitzean inauguratu zuten erakusketa Aroztegin. Toribioren seme-alaba Bixente eta Karmen han izan ziren, udaleko ordezkariak alboan zizutela.

Biek nabarmendu zuten aitarantz argazkilaritza "guztia" zela; eta haren lanetik gehien nabarmendu zuten, "horien bitartez Bergara zelan eraldatu den ikus" daitekeela.

Are gehiago, gogoratu zuten haien seme eta bilobek ere, eurek ez bezala, argazkiarekiko zaletasun handia dutela.



Argazkiek interesa piztu dute herritarren artean. | IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Etxea saltzen da Muntsaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskigitokiarekin. Dena kanpoalderuntz ematen du. Garajea eta trastelekua. Oso polita. Deitu ta ikusi! 615-00 72 16

Abadiño. Etxea salgai Muntsaratz-en. 2 logela, 2 komun, sukaldea, egongela igogailua, trastelekua eta garajea. 4garren solairua, ia berria. Prezioa: 217.000 euro 688-68 65 87

Arrasate. 47 metro koadroko etxebizitza salgai Erguinen. Egoera ezinhobean. Berokuntzarekin. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 148.000 euro. 649 70 33 83

Arrasate. Erdialdean 65 m2ko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berriztu berria. 20:00etatik aurrera deitu. 603-79 60 95

Arrasate. San Josepe. 47 m2, 2 logela, komuna, sukaldea, egongela, trastelekua. Igogailua. Ekialdera ematen du. Etxabea da, erreformak, etxerakomudua@gmail.com.

Azkoitia. 67 m2-ko etxebizitza salgai kale Nagusian. Informazio gehiago: 688-67 45 11

Azpeitia. Azpeitian guztiz berritutako etxe ederra. 90 m2 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Ateak, leihoak, berogailua,... Dena berria. Ganbara ere badu. Dena kanpo aldera. 617-78 77 93

Bergara. Etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, egongela eta bainugela. Sukaldea erabat egokitua. Garajea aukeran. 653744956 edo 688 80 30 55

Bidegoian. Etxe bifamiliarra salgai Bidanian. Oso egoera onean, orain dela 5 urtekoa. 3 logela, egongela ederra tximiniarekin, sukaldea, 2 bainugela eta garajea ditu. 100 m2ko lorategia du. Sartzeko prest dago. 656-74 84 15.

Bilbo. Etxe handia eta eguzkitsua salgai Basurtu auzoan. Ospitaletik gertu eta tren geltokiaren ondoan. Basurtuko beheko partean dago, Indautxu ondoan. 180.000 euro. Aukera paregabea! 635-72 79 37

Durango. Sasikoa kalean pisua salgai. 3 logela, komuna, egongela-jangela, sukaldea eta ganbara. Prezio onean. Garajea ere bai, nahi bada. Telefonoa: 679-38 23 69

Durango. Etxea salgai Andra Maria kalean. Bilogela, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du; oso argitsua. Pisu altua, 30 m2-ko terrazarekin. 696-2550 83 (arratsaldeko 17:00etatik aurrera)

Durango. Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berritzuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 223.000 euro. 607-71 53 53

Elorrio. Berritutako etxe eguzkitsua salgai, trastelekuarekin. Nahi izanez gero, garajea ere erosteko aukera. Prezioa negoziatu daiteke. 615-73 27 27.

Elorrio. Pisua salgai. Berrio-otxoa kalean berritzuta dagoen jauregian, 70 m2-ko pisu polita,

2 logela, sukalde eta egongela, komuna, 9 m2-ko trastelekua, 19 m2-ko garaje itxia. Dena 303.000 euro; trasteleku eta garaje barik 283.000 euro. Nagore: 653-74 80 01

Etxarri-aranatz. Etxea errentan edo salgai 654-23 41 02.

Etxarri-aranatz. Pisua alokagai edo salgai. 654-23 41 02

Iurreta. Etxebizitza salgai Askondo kalean. 210.000 euro. 78m2, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua dago. Garajea ere bai gure bada. Tlf: 946-81 19 48

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai Bakardadeko ama kalean. Sukaldea, egongela, bi logela eta komun bat. 264.000 euro. Garaje itxia aukeran, 35 m2, argi eta ur instalazioarekin. 66.000 euroan. 659-72 06 64

Oñati. Etxaluzen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela-egongela, lau logela, bi bainugela, bi balkoi, trastelekua eta garajea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 24 80 02

Zegama. Goierrin, landaturismorako berritutako baserria salgai. (100m2ko hiru solairu) 6 logela bikoitz bainugelekin eta norberarentzat apartamentu, sarrera propioarekin. Bikain hornitutako sukaldea. 10.000 m2ko lursaila. Salmenta premiazkoa denez, prezio egokia dauka. 658-73 51 75 (13:00 -15:00).

103. ERRENTAN EMAN

Anbotoko magalean asteburuetarako borda ematen da errentan. 14:30etik aurrera deitu. 620 10 52 63

Arakil. Satrustegi Arakilgo kontzejauk, kontzejuko lehen solairuan duen etxebizitza alokatzen du. Prezioa: 360 euro hilean. 646-10 28 73.

Arrasate. Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 639 96 01 21

Arrasate. Erguin kalean hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Berritua. Berokuntzarekin. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua eta kanpoaldera begira. 617171823

Durango. Pisua errentan: 3 logela. Oso eguzkitsua eta bista ederrek. 4. Pisua, igogailu eta berogailuagaz (gas naturala). 638-12 58 38

Etxarri-aranatz. Pisua alokagai edo salgai. 654-23 41 02.

Etxarri-aranatz. Pisua alokatzen da. 615-83 40 28

Etxarri-aranatz. Pisu bat alokatzen da. Merkea. 607-31 76 67.

La Mongie. Etxebizitza ematen da errentan. Denboraldi osorako edo asteburuetarako. 2 edo 4 pertsonarentzako. Pistatik gertu. 606 39 70 81

Luz Saint-Sauveur. 55 metro koadroko duplexa ematen da errentan Luz erdigunean. Neguko denboraldi osorako. 6 pertsonentzako. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 665 70 04 87 edo 671 07 12 48

Oñati. Lau logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 663-69 31 16

Oñati. Plazatik 100 metrora 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. 450 euro hilean. 687-32 99 57,

Zaldibar. Logela bat ematen dut errentan. 655-73 97 92

Zumaia. Zumaian larretxo auzoan pisu bat alokatzen dut. Hiru logela, sukaldea bi bainu eta

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:
943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:
- **Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.** Egubakoitzean + Astelehenean: 20,50 € (BEZ barne). Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
- **Profesionalen moduluak.** Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ). Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

egongela ditu. Bigarren solairuan dago eta igogailua badu. Garajea ere badu. 943-86 00 65 eta 606-38 55 80.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Pertsona arduratsuen etxebizitza txikia hartuko luke errentan. Presazkoa da. 666-21 88 95.

Arrasate. Arrasateko neska langile eta arduratsuen etxebizitza hartuko luke errentan erdialdean. 500 euro arte ordainduko nuke. Mila esker. Iraia. 606-74 42 37.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelarekin nahikoa genduke. Hilean 500 -550 euro ordaintzeko prest. 647 22 35 87

Bergara. Bikote batek etxebizitza behar du errentan. 610-62 65 04

Debagoiena. Etxebizitza behar dut errentan. Arrasaten, ahal bada. Hilean asko jota 500 edo 600 euro ordain dezaket. 639 94 48 65

Durango. Alkiltatzeko etxe bila nabil durango eta inguruetan. 637-14 41 62. Momo

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu alokagai Arrasaten. 630 71 35 83

Arrasate. Logela ematen da errentan. Deitu 18:00etatik aurrera. 943 53 21 62

Bergara. Gela bat alokatuko nuke. 652-74 67 15

Etxarri-aranatz. Gela bat alokairuan hartuko nuke etxarri arantzzen inguruan gela bat alokairuan hartu nahi dut. 619 -86 06 16

Oñati. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan emateko Errekalden. Deitu 18:00etatik aurrera 653 74 87 51, 699 46 76 11 telefono zenbakietara.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Abadiño. Garajea salgai matienan. Zeus-en lokalean. Deitu eta informatu 94-681 70 67 telefono zenbakira.

Arrasate. Garaje itxia, 20 metro koadrokoa, errentan eman edo saltzen da Uarkapen. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: Deitu 943245357 edo 615 73 98 30 telefonofona.

Durango. Garaje partzela bat salgai Alluitz kalean, 3. Zenbakian. 22.000 euro. 636-33 82 46. Amaia

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia, 20 metro koadrokoa, errentan eman edo saltzen da Uarkapen. Deitu 943 24 53 57 edo 615 73 98 30 telefono zenbakietara.

Bergara. Bi garaje ematen dira errentan Bergaran. Bat Burdinaten eta bestea Masterrekan. Deitu 600 64 67 88 telefono zenbakira.

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Kruz Gallastegi kalean. Bigarren solairuan, 25. Zenbakia. Deitu 665-70 66 73 telefono zenbakira eta Estherrengatik galdetu.

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan Oñatiko San Juan Kale inguruan. Berdin da itxia izan ala ez. Deitu 627 62 12 55 telefono zenbakira

3. LOKALAK

301. SALDU

Bergara. 180 (90+90) metro koadroko lokala salgai Labegaraletan. Bista ikusgarria. Goiko pisua bulegotarako egokitua. Prezioa: 130.000 euro. 627 537 861 edo 627 537 862

4. LANA

402. ESKAERA

Arrasate. Enkofratze lanetan aritutako lehen mailako ofiziala lanerako gertu. Bestelako lanak ere egingo nituzke. Deitu 673 -03 09 60 telefonora.

Arrasate. Emakumea gertu sukaldari lanak egiteko asteburuan edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. 619-78 63 41

Arrasate. Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanetarako. 679-04 42 68

Arrasate. Neska bolibiarra lanerako gertu. Etxean bizitzatzen edo asteburuetan. Legezko dokumentu guztiekin. 618-14 71 34

Arrasate. Asteburu eta jaiegutuetan lan egiteko gertu: garbitasun lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko. 682-31 97 37

Arrasate. Hemengo neska etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko edo edozein lanerako prest, orduka ere bai. 659-55 27 16.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu orduka plantxa zein garbiketa lanak egiteko edo ume eta nagusiak zaintzeko. Deitu 699-54 17 27 zenbakira.

Arrasate. Neska euskalduna, esperientzia handikoa umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. 659-81 59 15.

Arrasate. Arrasateko neska gazte euskalduna goizetan etxeak garbitzeko prest. Esperientziaduna. 618-41 24 79

Arrasate. Umeak zainduko nituzke. Eskolara bila joateko aukera ere bai. Aisialdi titulua. 661-35 49 28

Arrasate. Asteburu eta jaiegutuetan lan egingo nuke nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa zein plantxa lanetan. Baita astean zehar 18:00etatik 20:00etara bitartean ere. Presazkoa da. Fanny salviaterra. 682-31 97 37.

Arrasate edo Bergara. Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak daukat. 666 84 17 05

Arrasate edo Bergara. Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketa, sukalde laguntzaile. Legezko paperak eta informea daukat. Esperientziaduna. 659 37 41 95

Azpeitia. 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduna bai begirale moduan, zaintzaile moduan. Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606 -42 64 14

Azpeitia. Biemakume, helduak zaintzeko prest. Geriatriako titulua daukagu. 695-74 88 35 eta 647-72 23 36 loreaig83@hotmail.com

Azpeitia. Haurrak zaintzen lan egingo nuke. Badaukat esperientzia. Arratsaldez egingo nuke lan. 620-52 38 97 eta tursiops@euskaltel.net

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxan edo etxeko garbitasuna egiteko, orduka, arratsaldez. 699-54 17 27.

Bergara. Haur heziketa ikasi duen emakume euskaldun bat umeak zaintzeko gertu. Egun guztian. 943-53 42 54 edo 688-65 30 62

Bergara. Emakume bat gertu goiz eta arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. Deitu 610 -34 97 88 telefono zenbakira.

Bergara. Emakume gaztea haurrak zaintzeko gertu. Ordegi aldetik arazorik ez. Deitu 673 -22 38 00 telefonora.

Bergara. Haurrak zaintzeko gertu nago, orduka zein egun osorako. Esperientzia handia daukat. 686-11 24 66

Bergara. Esperientziadun neska umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu 665 -75 41 32 telefono zenbakira.

Bergara. Umeak zaintzeko, garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko (azken honetan esperientziaduna) gertu nago. Ordegi malgua. Deitu 676-89 50 13 telefono zenbakira.

Bergara. Emakumea gertu etxeak garbitzeko eta baita sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko ere. 665-75 41 32

Bergara. Bergara, antzuola edo Zumarraga. Neska bat gertu dago etxeak, elkarrekin eta abar garbitzeko, nagusiak zaintzeko edota zerbitzari eta plantxa lanetan jarduteko. Ordegi malgua. Erreferentzia onak eta esperientzia handia. 943-7666 24 edo 634-91 87 73.

Bergara. Umeak zaindu eta etxeko lanak egiten lan egingo nuke. 665-75 41 32

Bergara. Bergaran lana egingo nuke. Administrazioan 18 urte baino esperientzia gehiago. Seriotasuna. 615-71 99 39

Bergara. Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Hautzaintza titulua eta esperientziadunak. 688-65 30 62 (Arantzazu)

Bergara. Sukaldaria naiz, emakumea eta esperientziaduna (menu eta kartara). Deitu 677 64 84 82 telefono zenbakira

Bilbo. Emakume gaztea eskaintzen da etxeko garbiketa lanak egiteko bilbon. Aukerak Deitu 665-70 47 24 zenbakira.

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu zerbitzari edo garbiketa lanetan jarduteko. 679-04 42 68

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu sukaldari jarduteko. Garbiketan ere arituko nintzateke. 619-78 63 41

Debagoiena. Neska euskalduna gertu goizez etxeko lanak egiteko. 616-68 02 18

Debagoiena. Bertako neska esperientziaduna gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. 637-18 07 23

Debagoiena. Erizain laguntzaile gertu nagusiak zaintzeko. Ordegi malgua. Gazez ere bai. Autoa daukat. 622-05 21 74

Debagoiena. Neska ardurasua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzen, nagusi laguntzen edo orduka garbiketa lanetan jarduteko. Deitu eguerdian, 16:00ak arte, telefono finkora, edo gaudetan. 943-71 53 74 edo 695-73 87 95

Debagoiena. Neska bat etxeko lanak egiteko prest, orduka, internadoez edozein modutan. Tabernetan ere lan egingo nuke. Esperientzia daukat sukaldean. Eta garbiketa lanak ere egiteko prest nago. Erreferentziak daukat, baita paper guztiak behar bezala ere. Deitu 943-53 36 72 edo 677-73 79 59 telefono zenbakietara.



KOROOSTI
INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokoroosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Masterreka 92 m2. 237.399 .
- Masterreka. 88 m2. Igogailuarekin.
- Arteka 40 m2. Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m2. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60m2. Oso ondo
- Mesolalde 110 m2. 90.000 .
- Osintxu. 84 m2. Igogailuarekin. 153.258 .
- Ibargarai 54 m2. Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m2. Eraikitzeke.
- Burdinate 53 m2. Prezio ona.
- Matxiategi 65 m2. Igogailuarekin.
- Ibarra 47 m2. 146.888 .
- Bolu 96 m2. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m2. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m2. 154.761 .
- Aranerreka 80 m2. 189.319 .
- San Lorenzo 68 m2. Berritua.
- Herri Lagunak 52 m2. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Arteka. Logela bat. Berritua.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

Antzuola:

- Buztinziuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aiera eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m2. Oso etxe ona.

Elgeta:

- **ÄUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
- **PREZIO EZIN HOBEAK:** 249.210 tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

Soraluze:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.



Deba Garaia
Inmobiliaria

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Arrizuri, 97 m2, garajearekin.
- Aranerreka, 80 m2, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m2, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m2, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m2, oso eguzkitsua.
- Burdinate, 104 m2, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m2, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m2, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m2.
- Martoko, 87 m2, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m2, ondo.
- Ibargarai, 80 m2 oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m2 oso ondo.
- Zabalotegi 80 m2, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m2, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 m2, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m2, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m2, oso ondo.
- Zubieta, 125 m2, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m2, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m2.
- San Antonio, 65 m2, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m2, eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m2. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Arteka, 48 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Arrizuri, 90 m2. Terrazarekin. Oso ondo.

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m2, berria.
- Sagarrerreka, 58 m2, aukera ona.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

Debagoiena. Neska gertu nagusiedo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Erreferentzia onak ditut. Telefonoa: 638-93 11 48

Debagoiena. Arrasate edo Bergara. Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketa, sukaldelaguntzaile. Legezko paperak eta informeak dauzkat. Esperientziaduna. 659-37 41 95

Debagoiena. Emakumea gertu goizetan nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Telefonoa: 626-78 22 95

Debagoiena. Esperientziadun emakume gazte batek hainbat lan egingo lituzke: etxeko lanak, etxeak garbitu, sukaldari laguntzaile, zerbitzari... 663-46 93 60 edo 943-08 11 07

Debagoiena. Mutil gaztea askotariko lanak egiteko gertu. 654-98 69 14

Debagoiena. Neska gertu garbiketa lanak egin edo etxean bizi izaten zein bestela nagusiak zaintzeko. 610-60 62 29

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 671-15 96 97

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak egiteko, garbiketa lanetarako, laguntzaile jarduteko eta nagusi edo umeak zaintzeko. Legezko paperak dauzkat. Telefonoak: 648-01 40 94 edo 943-08 20 79

Debagoiena. Ile-apaintzaile edo makillatzaile lanetan jardungo nuke. Baita nagusiak zaintzen ere. 666-21 88 95

Debagoiena. Emakumea eskaintzen da asteburutan lan egiteko, garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzen. 699-09 46 26

Debagoiena. Mutila gertu asteburuetan edozelako lanak egiteko. 654-98 69 14

Debagoiena. Mutila gertu garbiketa edo bestelako lanetan jarduteko. 689-88 80 23

Durangaldea. Astelehenetik ostiralera goizetan nagusiak eta umeak zaindu, etxeko lanak egin edo taberna laguntzeko prest. Neska euskalduna naiz. Telefonoa: 648-13 13 27

Durango. Umeak prestatu eta ikastolara eramateko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu durangon. Astean 20 ordu. Deitu telefono honetara: 615 725 400.

Debagoiena. Geriatria laguntzailera pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baita gaixoak ospitalean zaintzeko ere, gauak barne. 8:00etatik 15:00etara edo 20:00etatik goizeko 8:00etara egingo nuke lan. Mirian. Deitu 646-05 58 88 edo 943-79 79 49 telefono zenbakietara.

Durango. 27 urteko neska, goizez umeak zaintzeko edo dendaren batean lan egiteko prest. Esperientzia daukat. 665 -71 74 58

